

Kultura

Txapito Guzman eta Ibarako langostinuek:
"Rantxerak jotzen dituzten punkiak gara" > 11



Pilotan arituz sortzen delako afizioa



Zornotzak 12 pilotari izango ditu Emakumeen Master Cup txapelketan. Ordezkaririk gehien duen herria da. Erdu Pilotan klubekoak dira denak. Gustuko duten kirolagaz gozatuz, belanaldi berrientzat erakusgarri izan gura dute. > 15

Lehior Elorriaga

Andoni Aizpuru enbaxadore dela, Txotx! egin dute Uxarten

Bizkaiko Sagardoaren denboraldiari hasiera eman zioten eguaztenezan Zornotzako Uxarte sagardotegian. Andoni Aizpuru ETBko aurkezle elorriarraren txotxagaz ekin diote denboraldiari. Era berean, hitzordua baliatu zuten Euskal Sagardoa jatorri izena duen sagardoa aurkezteko, soilik bertako sagarragaz ekoiztuko dena. > 6

*“Errefuxiatuekin
gaudela erakusteko
beharrizana
dauka jendeak”*

Egoitz Zabala | Aita Menniko kidea > 2



ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ
Eitua industriagunea, 71C
Tel.: 946 824 550
alkimax@alkimax.net / www.alkimax.net

GERNIKA
Goiko Ibarra, 26
Tel.: 946 271 310




FAROLAK


INFRAGORRIAK


AIRE KAINOIA


ERRADIADOREAK


HEZETASUN
KENGAILUAK


MOTOBONBAK


BONBA
URPERAGARRIAK

Durangaldea > 3

Durangaldean lau eraso sexista salatu dituzte dagoeneko 2017an

Durango > 2

Aldundiko tramiteak Durangon egin ahalko dira aurrerantzean

Otxandio > 8

Erremerariei buruzko eskultura inauguratuko dute jaietan

Elorrio > 9

Herri galdeketaen aurkezpena egingo du Gure Esku Dagok

▶ Herririk herri

Errefuxiatuentzat 7.000 kilo arropa batu, eta dagoeneko Greziara bidali dute

Egoitz Zabala: “Jendeak zerbaitegitea behar du, eurekin gaudela erakusteko beharizana dago”



Egoitz Zabala, herritarrek emandako arropa atzean duela.

DURANGO Markel Onaindia “Jendeak zerbaitegitea behar du, eurekin gaudela erakusteko beharizana dago”. Aita Menni ospitaleko Egoitz Zabalak gidatu du errefuxiatuentzako neguko arroparen bilketa, eta herritarrek emandako eranztzun itzelagaz harriz dago.

Durango erresidentzian 7.000 kilo arropa batu dituzte, eta Bilboko eta Arrasateko gehituta, 22.000 kilo dira. “Gainezka egin digu, baina oso pozik daude”, aitortu du Zabalak. Kutxak kamioietan sartu, eta dagoeneko Greziara bidali dituzte; han, Lighthouse Relief (Norvegia)

eta Mo chara (Irlanda) gobernu kanpoko erakundeek eta Proactiva itsas salbamentuko taldeek gestionatuko dute banaketa.

Zabalak eskerrak eman dizkie parte hartu duten ehunka pertsoneri. Adibidez, herri askotan bilketa puntuak ipini dituzte, gero Aita Menniko erresiden-

tzietara eramateko. Baina, 3.000 kilo, eskatzen ez zen arropa izan da, udaberriko edo udakoa. “Seguruenik Caritas eguzki ku-deatuko dugu arropa hori”, esan du Zabalak. Bilketa amaituta ere, jende bat hurreratu izan da. “Gizon bat etorri zen, ea zer zapata erosi behar zuen galdetuz. Gainezka geundenez, ez erosteko esan genion. Egiten ari ginen lana ikusita, hurrengo egunean pastel bat ekarri zigun”, dio hunkituta Zabalak.

Lan egiteko gogoz

Errefuxiatuen aldeko lanean dirua behar dela nabarmendu du, produktu eta material asko han erosi behar delako. “Handik helitzen ari zaiguna da laster gosea heldu ahal dela, elikagai krisi bat egon daitekeela. Hori gertatzen bada, lan egiteko gogoa ez dugu galdu”, azpimarratu du Aita Menniko kideak. Sentsibilizatzen jarraitzea da, bere ustez, garrantzitsua.

Arau ekonomikoa “zentzuz” bete duela dio udalak

DURANGO Markel Onaindia Durangoko Udalak jardura ekonomikoaren araudia “zentzuz” bete duela esan du Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak. 2015eko udal kontuen fiskalizazioa egin du, eta udalaren iriziz, “modu onean” gainditu du azterketa hori.

Udalak prentsa ohar bidez azaldu du epaitegiak araudiari lotutako hiru desoreka topatu dituela, pertsonalaren gestioagaz eta kontratazioagaz zerikusia dutenak, hain zuzen ere. Baina korporazioak iritzi desberdina du gaiaren inguruan, eta, horregatik, 9 alegazio aurkeztuko ditu. Bestalde, 2009. eta 2010. urteetan udalak 5,2 milioi euroko mailegu bi kontratatu zituela jasotzen da, erabili ez direnak. Hala ere, denboragaz kopuru hori 2,3 milioitara baxatu du udalak, eta datu hori kontabilitatean agertzea proposatu du epaitegiak. Gai honek polemika eragin izan du, EH Bilduk “zorraz ezkutatzea” leporatu baitzion gobernuari.

Aldundiko tramiteak Durangon egin ahalko dira hemendik aurrera

Unai Rementeriak Aldundiaren bulegoa bisitatu zuen astelehenean

DURANGO M.O.

Aldundiak Durangon zabaldu du bere lehenengo bulego integrala. Beraz, tramiteak egiteko, Durangaldeko biztanleek ez dute Bilboraino joan behar aurrerantz. Unai Rementeria ahaldun nagusiak bisita egin zuen astelehenean, Aitziber Irigoras alkateak eta Ibone Bengoetxea Herri Administrazioiko diputatuak lagunduta.

Orain arte ogasuneko kontuak gestionatu izan dituzte Askatasun etorbideko bulego horretan, baina, aldaketari esker, 150 tramite egin ahalko dira. Rementeriak A-8 autobideko diru-laguntzak edota familia ugariak bertan gauzatu ahal izatea nabarmendu du. Durangoako azken astelehenean, laster Gernikan ere zabalduko dute beste bulego integral bat. Ahaldunak adiera-

zi du “herritarrekiko hurbiltasuna eta modernizazioa” lortu gura dituztela bulegoagaz.

Egoitzetako beharginak

Bestalde, bulegoaren kanpoaldean zaharren erresidentziako beharginak batu ziren ELA sindikatuak deituta. Lan baldintzak hobetzearen alde protestan dabilta, eta otsailerako hile beteko grebara deitu dute.



Rementeria, Irigoras eta Bengoetxea, bulegoan bisitan.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2017ko urtarrilaren 20a
14. urtea - 661. alea

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Durungaldean lau eraso sexista salatu dituzte dagoeneko 2017an

Azken kasua martitzenean eman zuen jakitera Durangoko Udalak



Zornotzako Emakume Taldekoak, zapatuan, hainbat herritarren babesagaz.

DURANGALDEA M.O. Indarkeria matxistagaz lotutako albiste txarrak ekarri ditu 2017ak. Izan ere, dagoeneko lau eraso sexista salatu dituzte Durungaldean. Azken kasua martitzenean eman zuen jakitera Durangoko Udalak; zapatuan, 27 urteko emakume batek eraso sufritu zuen, eta bere bikotekidea atxilotu dute eraso berari egotzita.

Eraso horri joan zen astean zabalduz beste hiru kasuak gehitu behar zaizkio. Durangon

bertan, urtarrilaren 3an adin txikiko neska batek jasan zuen eraso; Zornotzan, hilaren 6ko goizaldean egin zioten eraso neska bati; Elorrión, gizon baten jazarpena salatu du neska batek, bigarren aldiz. Epaileak sei hileko urruntze agindua ezarri dio gizonari.

Durangon, manifestazioa Mugimendu feministak gertakariak gaitzetsi ditu, eta herritarrei inplikazioa eskatu die. Durangon, plataforma feminis-

tak manifestaziora deitu zuen atzo iluntzerako. Zornotzan, ostera, prentsaurrekoa eskaini zuen emakume taldeak. “Ez dugu emakumeenganako eraso fisikorik, kontrolirik, irainik eta mehatxurik onartuko”, aldarrikatu zuten.

Elorrioko Bilgune Feministak, bere aldetik, “herritar sare kontzientziatu” baten beharra nabarmendu du, erasotzaileekin “intolerantea” izango dena –Irakurketa osorik irakurgai dago gutun atalean–.

Elorrión 20 kasu landu dira indarkeria sexistagatik

Udalak babesa erakutsi dio neska jazarriari

Neska batek sufritutako jazarpena joan zen astean publiko egin ostean, Aratxu Uriarte berdintasun zinegotziak gutuna bidali du hedabideetara, udalaren izenean neskari babesa erakusteko. Gainera, 2016an indarkeria matxistaren harira burututako gestioa baloratu du; Elorrión 20 kasu landu dira 2016an. Horietatik

zazpi salaketa Durangaldeko protokoloaren baitan garatu

“Animatu gura zaituztegu horrelako jokamoldeekin jarrera kritikoa eta aktiboa izatera”

dira, eta udaleko berdintasun bulegoan beste hamahiru auzi gestionatu dituzte. Aholku eta laguntza eske joan dira emakumeak, eta zenbaitetan iradokizunak egitera ere bai, Uriarteren esanetan. Azken kasua jazarpena sufritu duen neskarena izan da. “Elkartasuna adierazi gura diogu; eskerak eman bere ausardiagatik, publiko egiteagatik eta salatzegatik”, esan du Uriartek.

Horretaz aparte, eraso sexistak ez onartzeko deia egin die herritarrei. “Elorriarrok animatu gura zaituztegu horrelako jokamoldeekin jarrera kritikoa eta aktiboa izatera”.

Barreña, Uriarte eta Zuazo hil berri dira

Uriarte gudaria izan zen, eta besteak lekukoak

DURANGALDEA M.O.

Jesus Uriarte gudaria, eta Alberto Barreña eta Emiliano Zuazo Durangoko bonbardaketaren lekukoak hil dira azken astean. Testigantzak publiko egin zituzten, kolpisten erreprosioren erakusle zirenak.

Gerra Zibilean errepublikaren aldekoekin parte hartu zuen Uriartek, beste anaia bigaz batera; trintxerak egiten ipini zuten. Gero, frankistek harrapatu eta lan-batailoietara eramane zuten. Diman jaio zen, baina Izurtzara ezkondu zen gaztetan. Irailean 100 urte bete zituen, eta, horregatik, udalak

omenaldia eskaini zion herriko jaien bueltan.

Alberto Barreña durangarrak 12 urte zituen 1937ko martxoaren 31n, bonbardaketa egunean. “Beldur itzela pasatu genuen. Hilerrira bidean kamioiak hildakoz beteta pasatzen ikusten genituen”, esan zuen. Barreñak erbeste ere ezagutu zuen.

Emiliano Zuazo iurretarra ere Durangoko bonbardaketaren lekuko izan zen, eta horregatik, iaz, Gerediagak antolatzen duen oroimen ekitaldian berak egin zuen hildakoen omeneko lore eskaintza.



Barreña, Uriarte eta Zuazo, ezkerretik eskumara.

Herri ortuen lursaila ia prest dago 15 erabiltzailerentzat

Ura eramatea eta sarrera atontzea falta da

ATXONDO J.D.

Herri ortuak laster jarriko dituzte martxan igerileku ondoko lursailen. “Aste batzuetako kontua da”, Dabid Cobos alkatearen esanetan. Sasiak kenduta eta ingurua garbituta, lursaila prest dago dagoeneko.

Igerilekutik lursailera ura eramatea falta da. Ortuetarako sarrera igerilekutik izango da, eta bide hori atontzen ere badabilta. Ortuetarako biltegi

moduan igerilekuko biltegia bera erabiliko dute. Han gordeko dituzte lan tresnak, esaterako.

Lursail osoak 3.000 metro karratu inguru ditu. Guztira, 60 bat herri ortu atera daitezkeela kalkulatu dute. Momentuz, 15 bat herritar daude izena emanda, eta eurentzat nahikoa den saila atonduko dute. Laster batzar batera deituko dituzte ortuen funtzionamendua azaltzeko.



ESKAINZA AKADEMIKOA
0 - 18 urtera arte
HAUR HEZKUNTZA • LEHEN HEZKUNTZA
DBH • BATXILERGOA

KURUTZIAGA IKASTOLA

AURREMATRIKULA
2017ko urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Tel. 94 620 08 22 • www.kurutziagaikastola.eus







Abereak bedeinkatu zituzten San Anton egunez, Urkiolan

San Anton Abad animalien zaindariaren eguna ospatu zuten martitzenean



Meza nagusiaren amaieran, hainbat txakur bedeinkatzera irten zen abadea eliza atarira.

ABADIÑO Itsaso Esteban
Hotzak ez zituen kikildu ohiturak agintzen duen bezala urtarrilaren 17an San Anton eguna Urkiolan ospatu gura izan zuten Durangaldeko eta inguruetako herritarrek. 12:00etako edo 13:00etako meza entzun, eta animalien zaindariaren eguneko bedeinkapenak jaso zituzten.

Mezan, eliztarrek eramandako ogiak bedeinkatu zituen abadeak, eta hainbat lagun beraien etxeko abereekin urteroko bedeinkapena jasotzeko zain izan zituen, Santutegiaren atarian.

Bedeinkapenak neguari aurre egiten lagunduko zielakoan, baserriko abereak eramaten zituzten sasoi batean San Anton

egunez Urkiolara. Azken urteotan, berriz, etxeko abereak dira bedeinkatzera eramaten dituzten gehienak.

Martitzenean Urkiolara joaterik izan ez zutenek domekan ere izango dute aukera. 12:00etan eta 13:00etan meza izango da, eta trikitalariak jardungo dira giroa berotzen.

“Gobernu taldeak ez gaitu kontuan hartzen”, salatu du EH Bilduk

BERRIZ M.Z.

Asteon egindako bilkuran, gobernu taldeak kontuan hartzen ez dituela salatu, eta protesta egiteko asmoz udalbatzan parterik ez hartzea erabaki zuten EH Bilduko kideek.

Oposizioaren hitzetan, “EAJko kideak ezkutuan dabilta eta traba modura hartzen gaituzte”. EH Bilduko zinegotziek aitortu zuten, ulertzen dute beti adostasun batera heltzea ezinezkoa dela, baina “aintzat ere ez hartzea” ez dutela onartuko adierazi zuten. “Berrizko zati handi bat ordezkatzeko dugu, eta haiek ere errespetuz tratatuak izatea merezi dute”, gaineratu zuten bilkura utzi aurretik.

EAJren erantzuna

Gobernu taldeak, berriz, horrelako egoera bat bizitzea inori ez zaiola gustatzen esan zuten, baina, hala ere, “iritzi guztiak errespetagarriak” direla onartu zuten. Hala ere, oposizioak politika beste era batera ulertzen duela azpimarratu zuten.

Matematikagaz jolasteko aukera eskainiko dute liburutegian

ZALDIBAR I.E.

Otsailaren 10ean sei eta zortzi urte artekoentzat, eta otsailaren 17an bederatzita eta hamaikura artekoentzat matematika jolasak eskainiko dituzte liburutegian. Lehenengo saiorako, dagoeneko ez dago lekurik, baina 9 eta 11 urte artekoek oraindik ere badute otsailaren 17an 17:00etatik 18:30era egingo duten tailerlean izena emateko aukera. Liburutegian eman daiteke izena.

Matematika Txokoa taldeko lau matematikari gazteren ekimena da Matematika Jolasen tailerra, eta zientzia horrekiko beraien pasioa ume eta gazteei transmititzea dute helburu. “Topiko faltsuak eraitsi eta ezagutza matematikoa eraikitzea da gure asmoa, ahalik eta modu sinple, erakargarri eta matematikoenean” diote gazteek.

Besteak beste, mosaikoak, kriptografiak eta poliedroak egingo dituzte Zaldibarko liburutegiko saioetan, eta jolas geometrikoetan eta mapak koloretzatzen ere ibiliko dira.

Bertso afaria eta danbor hotsa izango dira Bakixan

San Sebastian jaiak ospatuko dituzte asteburan

IURRETA A. Basauri

Donien Atxa jasota, jai-giroan egingo dute asteburua Bakixan. San Sebastian jaien aitzakian hainbat ekitaldi izango dituzte.

Gaur, San Sebastian egunez, meza izan dute 12:00etan, eta, 18:00etan, igel txapelketa hasiko da. Bertso afariak hartuko du lekukoa, 21:00etan. Eneko Abasolo ‘Abarkas’, Gorka Lazkano eta Igor Galarza gonbidatu dituzte bertara. Jarraian, Txapito Guz-

man eta Ibarrako langostinuen taldeak joko du. Biharko, berriz, tiro txapelketa (11:30) eta bakailao txapelketa (21:00) antolatu dituzte; eta, gaurdian hasiko den danborrada amaituta, Luhartzek jarriko du jai-giroa.

Etzi goizean, Iurretako abesbatzak mezan abestu, eta Mikel Deuna taldeko dantzariak saioa egingo dute. Arratsaldean, briska txapelketa, Maiztegiko dantzariak eta jolasak egongo dira.



Danborrada ere egingo dute Bakixa auzoan, zapatu gaurdian.

120 marihuana landare aurkitu dituzte Osman

MALLABIA J.D.

Astelehen eguerdian Mallabiko Osmo auzoko pabilioi batean sutea gertatu zen. Suhiltzaileek sua itzali ostean, erztainek pabilioi barrua arakatu zuten. Ustez ezelango ekin-tzarik burutzen ez zen pabilioi hartan landareak hazteko produktuak eta tresneria aurkitu zituzten. Eskailera baten bidez, 15 bat metro koadroko gela batera sartu ziren, eta bertan 120 marihuana landare aurkitu zituzten.

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

hitz #gomendioak

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

HELDUENTZAT
EUSKAL MUSIKA
KOSMIKOAK
Josu Larrinaga
Arza (2016)

UME ETA GAZTEENTZAT
JON ETA MIRKA
Harriet & Redondo
(2016)

MUSIKA
HARRO
Zea Mays (2016)

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Jhu
JESUITAK
Durango



San Jose Ikastetxea



zatoz gu ezagutzera.

946810050
sanjose@durangojesuitak.org
www.informazitez.eus



Aizpuru, sagardoagaz topa egiten.



Sagardo ekoizleak eta instituzioetako ordezkariak batu ziren ekitaldian, besteak beste.

Andoni Aizpururen txotxagaz hasi da sagardo denboraldia

Zornotzako Uxarte sagardotegian lehenengo txotxa egin zuten eguaztenean

ZORNOTZA Markel Onaindia Bizkaiko Sagardoaren denboraldiari hasiera eman zioten eguaztenean Zornotzako Uxarte sagardotegian, Andoni Aizpuru telebistako aurkezle elorriararren txotxagaz. Sagardo dastatu, eta “zoragarria” iruditu zitzaion enbaxadore berriari.

“Niretzat ohorea da enbaxadore izatea”, esanez hasi zuen berbaldua Aizpuruk. “Base-

rritarren, sagastijabeen lan horri balioa eman nahi nioke. Makurtuta sagarrak banan-banan batzen, sagarra zapaltzen, sagardo egiten... izugarritzko lana egiten da”. Aizpuruk aitortu zuen sagardozalea dela. “Edateko oso edari noblea da, nik beti sagardo eskatzen dut”.

Enbaxadore izango denez, 2017an uzta ona egongo dela iragarri zuen eguraldi saioko

aurkezleak, umore handiz: “Datorren urteko eguraldia nire kontu, eta sagar gehiago izango duzue”.

Uzta, urria baina kalitatekoa Ekoizleek aurtengoa baino eguraldi hobea beharko dute, bai. Izan ere, Aitor Intxaurreaga Bizkaiko sagardogileen elkarteko presidentek azaldu zuen iazkoagaz alderatuta aurten uzta

“nahiko urria” izan dela. “Alde batetik, 2015eko uzta handia izan zelako, eta horrek eragina edukitzen du hurrengo urtean. Bestetik, eguraldia eskasa izan da aurten; udaberria ez da sagarra loratzeko egokia izan, eta gainera, azarora arte ez du euririk egin”.

Guztira, 135.000 litroko uzta jaso dute Bizkaian, eta sagar gutxi egon arren, “kalitate one-

koa” dela nabarmendu du Intxaurreagak.

Bertako sagarra

Horrez gainera, Euskal Sagardo jatorri izena aurkezteko aprobetxatu zuten, soilik bertako sagarragaz ekoiztuko dena. “Bizkaian betidanik bultzatu dugu bertako sagarra, eta Euskal Sagardoagaz bultzada handiagoa edukiko duela uste dugu”, azpimarratu zuen Intxaurreagak.

Ekoizleez gainera, Andoni Agirrebeitia alkatea, eta Aldundiko eta Jaurilaritzako ordezkariak ere egon ziren ekimena babesten. Amaitzean, jai-giroan jarraitu zuten bertaratuek, aurten sagardo berria dastatzen.

Andoni Aizpuru:
“Edateko oso edari noblea da, nik beti sagardo eskatzen dut”

Sententzia batek bertan behera utzi du plan orokorra

IZURTZA J.D. 2010etik hona Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzen aritu da udala, baina orain prozesu osoa berriro hasi beharko du, epaitegiko sententzia batek bertan behera utzi ostean. Udaletik bidalitako oharrean sententziagaz “ez datozela bat”, azaldu dute. Aldundiak Plana hobetsi ostean, herritar batek

administrazioarekin auzi-prozesua abiatu zuen Planean ikusten zituen akatsengatik. Horietako bat aintzat hartu du epaileak. Udalak aukera bi zituen: sententzia Madrilen errekurritzea edo prozesua berriz hastea. Bigarrena aukeratu du laburragoa delako eta Plana “herriaren etorkizuneko ezinbesteko tresna delako”.

Krustazeoen erakusketa berri dute Hontzan

Australiako walabi lepegorria ere ikusgai dago

MAÑARIA M.O.

Hontza museoa erakusketa berri dute, krustazeo edo oskoldunen atalean aldaketak eginda. Askotariko krustazeoak topatu ahalko dira erakusketan; besteak beste, biolinistak edota eskorpioi itxurakoak, natur

Askotariko krustazeoak topatu ahalko dira erakusketan; biolinistak edota eskorpioi itxurakoak

zientzien museoko arduradunek prentsa oharrean azaldu dutenez.

Gainera, Australiako walabi lepegorria ere ikusgai dago, bisitarien artean interes handia sortu duena. Bestalde, laster beste aldaketa batzuk ere egingo dituztela aurreratu dute arduradunek.

Ia 5.000 bisitari

Duela urte bi pasatxo zabaldu zuten Mañariko museoa, eta dagoeneko ia 5.000 bisitari eduki dituzte.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !

anboto.org
MUGIKORREAN

Available on the App Store | Google Play



Zaldibar

Elizateko Udala

Eitzagako errotako irudia eta 'Zaldua' izena aukeratu dituzte Zaldibarko armarrria osatzeko

Zaldibarko Udalak azaldu duenez, datozen asteetan aurkeztuko du herriaren irudia izango den armarrria berria

“Herri baten armarrria, bere ikurra denez, herriaren ondarea ere bada”, jasota zegoen 2005. urtean Zaldibarren argitaratu zen artikulu batean. Artikulu hau Zaldibarko Udalak erabiltzen zuen armarriri buruzkoa zen. Izan ere, udalak armarrriaren inguruko ikerketa egiteko eskaera izan du urteetan.

1976an, orduko alkateak ezarri zuen armarrria ez zen egokia izan, eta horrela onartzen zuen berak ere urte batzuk geroago. Armarrri horretan agertzen zen irudia zaldi bat zen. Historikoki, baina, zaldiaren hautua ez zen egokia izan. Ikerketek diotenez, antzinako armarrrietan otso, basurde edo txerriaren antzeko animalia agertzen zen, baina inola ere ez zaldia.

2005ean zuhaitza (herria irudikatzen duena) alde batera utzi eta zaldia armarrriaren erdian, bera bakarrik, uztea erabaki zuten. Orduetik zaldia izan da Zaldibarko Udalaren irudi ofiziala. Hala ere, aski frogatua dago zaldia ez dela inoiz ere izan Zaldibarko ikurra.

Oker hau konpondu beharra zegoela azaldu dute gaur egun Zaldibarko Udalean diharduten herri agintariek. Horrela, 2011n udala armarrri-irudi egoki baten

bila hasi zen. Ikerketa heraldikoak eta hainbat batzar egin dituzte gaia lantzeko.

Jon Irazabal, Jose Mari Uriarte, Gaizka Zabarte eta Balendin Lasuen Gerediaga elkarteko kideak armarririk egokiena bilatzen eta aukeratzeko ibili zi-

Jon Irazabal, Jose Mari Uriarte, Gaizka Zabarte eta Balendin Lasuen aritu dira armarrria ikertzen

ren. Aritu hauek erabaki zuten, herrian tradizioz, historikoki dagoen armarrri bat hartzea zela egokiena. Eitzagako errotako armarrria zela horretarako egokiena proposatu zioten udalari.

‘Zaldibar’ izena

1932. urtera arte, herri honek Zaldua izena zeukan. Sasoi hartan hainbat bainuetxe zeuden herrian. Horietako garrantzitsuenak eta handienak “Balneario de Zaldibar en Zaldua” zeukan izena. Orain ospitale psikiatrikoa dena eta hormaz beste aldean geratzen dena sasoi hartako bainuetxe oso ezaguna izan zen.

Orduko pertsona garrantzitsuak penintsula osotik etortzen ziren Zalduako ur sufretsuetan tratamenduak hartzera.

Trenbidea egin zenean, geltokiari Zaldibar izena jarri zioten, bainuetxeko erabiltzaileentzat. Pertsona horiek Zaldibarrera zetozela esaten zuten. 1932an udalak Zaldua herriari izena aldatzea erabaki zuen, Zaldibar izena jarritz.

Oraingo udalak ez dio berriz ere herriari izena aldatuko. Hala ere, izen horrek leku berezi bat izan behar duela uste dute udal agintariek. Horrela, armarrrian Zaldua izenak leku berezia dauka. Honen guztiaren ondorioz, udal korporazioak aho batez onartutako armarrri berria aurkeztu du: historikoa, egokia eta kontrastatua.

Armarrri berriagaz, udalak bere irudi korporatiboa aldatuko du. “Udalagaz harremanetan jartzeko dokumentuak aldatu behar ditugun heinean, administrazioagaz euskaraz egiteko bultzatzea aprobetxatuko dugu”, azaldu du Arantza Baigorri alkateak. Udal dokumentuetan *Gurekin euskaraz!* esaldia jarriko dute, eta harremanetarako hizkuntza markatu dezaten eskatuko dute.



Zaldibarren armarrria berria.



Eitzagako errotan agertzen zen armarrriaren ilustrazioa.

Errementariei buruzko eskultura inauguratuko dute jaietan

Burdinazkoa izango da eta egitura osoak 14 bat tona pisatu ditzake



Gaztetxe parean dagoen burdinazko ingudea izango da eskulturako osagai bat.

OTXANDIO Joseba Derteano Otxandioko historia burdin-gaiaren ustiapenagaz lotuta egon da urte askoan. Errementariei herriko jarduera ekonomiko nagusienetakoa osatu zuten XVI. eta XVII. mendeetan. Orain, ofizio horrek Otxandiorrentzat izan zuen garrantzia betirako gogoratu dadin, errementariei buruzko eskultura handi bat egin eta Andresa Landa eraikinaren ondoko lurzati batean kokatuko dute, herritar talde baten ekimenez. Santamañetan inauguratuko dute.

“Otxandio errementari asko herria izana da, eta horren inguruan zer edo zer egin behar genuela esan genion elkarriri”, gogoratu du ekimenezko sustatzaileetako bat den Jose Miguel Gonzalez de Audikana otxandiarrak. “Belaunaldi berriei errementariei Otxandion izan zuten garrantzia erakusteko baliagarria izatea gura dugu”.

Errementarien ofizioagaz lotzen den eta hainbat elementu eremu berean batzen dituen burdinazko eskultura “itzel” bat izango da. Burdinazko oinarri komun batek (7,5 metro zabal eta 5 metro luze) batuko ditu elementu guztiak. Osagai denek elkarregaz errementari baten lana eta lan eremua irudikatuko dituzte.

Eskulturaren lehenengo maketa bat diseinatuta dute dagoneko. Irudi nagusiak errementaria bera lanean islatzen du. Es-

zituzten hainbat lan-tresna jarriko dituzte. Horietako batzuk benetakoak izango dira, eta ez dago hutsetik sortu beharrik. Esaterako, errementariaren parean egongo den ingudea gaztetxe atarian kokatuta dago gaur egun. Eskultura osatuko duten beste hainbat elementu (iltzeak, tenaza eta ferra, esaterako) udaletxe biltegitik jasoko dituzte. Eskultura osoa burdinazkoa izango da eta 12-14 tona inguru pisatu dezake. Ondoan, informazio panel bat gehituko diote.

Andresa Landa eraikinaren ondoan kokatuko dute, Otxandioko familia batek utzitako lurzati batean. Zorua atontzeko lanak udalak egingo ditu. Gainerakoan, proiektuak ez du gastu handirik eragingo. Izan ere, errementariaren irudia Vicinay enpresak dohainik egingo diela adierazi du Gonzalez de Audikanak. Vicinay kategintzaren arloko mundu mailako enpresa garrantzitsu bat da eta Otxandion du bere sorburua.

Eskultura Santamaña jaietan inauguratuko dute. Gauez egitea gura dute, suari erreferentzia egiten dioten osagaiak izango dituen ikuskizun baten bidez.

Andresa Landa eraikinaren ondoan kokatuko dute, familia batek utzitako lursailean

ku biekin mailua buru gaintik jasota, ingudean jarrita dagoen pieza jotzeko prest ageri da. Gorputzak ere ofizioari egiten dio erreferentzia. Beso, hanka, gorputz-enbor eta gainerako atalak kate baten katebegiak dira. Hau da, kate handi batek osatuko du gorputza. Lau bat metroko garaiera izango du irudi horrek.

Bere inguruan errementari euren ogibidean erabiltzen

16.000 euroko isuna udalari errekarra ur zikina botatzeagatik

Zelaieta auzoan dagoen araztegiak matxurak izan zituen iazko udan, eta isuriak horren ondorio izan dira, Armendariz alkatearen esanetan

OTXANDIO J.D. Uraren Euskal Agentziak (URA) 16.000 euroko isuna jarri dio Otxandioko Udalari. Iazko udan Zelaieta auzoan dagoen ur zikinen araztegiak “pare bat matxura” izan zituen, Urtzi Armendariz alkatearen esanetan, eta horren ondorioz ur zikina isuri zuten errekarra. Arazo horiek konponduta daudela adierazi du alkateak. Hala ere, araztegiarena azken urteetan

udalaren agendan dagoen gaia da. Araztegi “zaharra” da, eta, gainera, erreka ondo-ondoan egoteak arazoak sortzen ditu.

Udalak urteak daramatza askotariko erakundeekin araztegi berri bat egiteko alternatiba eztabaidatzen

Alde batetik, euri asko egiten duenetan “ingurua urak hartzen du”. Bestetik, erreka araztegi inguruko lurra jaten ari da apurka, eta “hondoratze arriskua” ere hor dago.

Udalak “urteak” daramatza Aldundiko eta Jaurlaritzako ingurumen sailagaz zein URA agentziagaz “araztegi berri bat egiteko alternatiba bila”, dio Armendarizek, eta bide horretan jarraitzeko asmoa dute.

Plazako iturriari txorrota berriak jarri dizkiote

Aurrekoak berunezkoak ziren eta ugertuta zeuden

OTXANDIO J.D. Udaletxe aurreko plazan dagoen Vulcano iturriko txorrota sistemak aldatu ditu udalak. Berunezko tutuak kendu eta plastikozko berriak jarri dituzte zaharren tokian.

Iturritik irteten den ura iturburu batetik zuzenean hartutakoa da. Orain arte 100 bat urte ziztuzten berunezko txorrotetatik isurtzen zen kanpora. Hodi horiek ugertuta zeuden eta uger-rra uragaz nahasten zen. Hodi

berriekin “ugerrik eta zikinik bako ura irteten da”, azaldu du Urtzi Armendariz alkateak. Beraz, “osasuntsuagoa” izango da.

Ur emari etengabea

Txorrota zaharrek beste arazo bat ere eragiten zuten. Ur emaria blokeatu egiten zuten eta ez zen uniformeki irteten, ezta jarraian ere. Gainera, zipriztin asko iturritik kanpora erortzen ziren. Hodi berriekin arazo hori konpontzea ere izan dute helburu.

825 euro batu dituzte Garaiko Errematan

Diruaren erdia elizako gastuetarako erabiliko dute, eta beste erdia Caritasi emango diote



Lazaro Milikua, produktuak herritarrei erakusten.

GARAI Markel Onaindia Erremata egin zuten martitzenean Garain, San Anton egunez ohitura den lez. 825 euro batu zituzten baserriko produktuen enkanteagaz; erdia elizako gastuetarako erabiliko dute, eta beste erdia Caritasi emango diote.

Eguraldi hotzak behartuta, aurten eliza barruan burutu dute enkantea, kanpoaldeko atarian barik. Gainera, salda beroa

eman zuten antolatzaileek, giro onaren seinale. 50 bat lagun batu ziren, eta baserriarrek eramandako produktuen truke dirua eskaini zuten.

Lazaro Milikuak gidatu zuen enkantea. Arrautzak, txorri-za, untxiak, pastelak, porrua, ogia... Deneriko jakiak egon ziren aukeran. Besteak beste, kiwi sorta bategatik 55 euro ordaindu zituzten, eta oilaskoen- gatik 45.

Herri galdeketaren aurkezpena egingo du Gure Esku Dagok

Biharko ekitaldia sinadurak batzen hasteko lehen mugarrria izango da



Gure Esku Dagok deituta, giza katea burutu zen Durangotik Iruñera, 2014an.

ELORRIO Markel Onaindia
Elorrioren herri galdeketa egin ahal izateko, sinadurak batzen hasiko dira bihar, urtarrilak 21. Izan ere, maiatzaren 7an herriaren egingo duten galdeketaren aurkezpena deitu du Gure Esku Dagok biharko; Arriolan izango da, 18:00etan hasita. Ekitaldi hori izango da beharrezko sinadurak batzen hasteko kanpainaren lehen mugarrria.

Gure Esku Dagokoek azaldu dute 700 sinadura behar dituztela, herritarren %10 hain zuzen, galdeketa egin ahal izateko. Hile biko epea edukiko dute

kanpainarako, eta bihar Arriolaran doazenez sinatzeko aukera edukiko dute. Ekitaldian zehar, herritar batzuk eszenatokira igoko dira, eta hantxe emango dute euren sinadura, kanpainaren hasiera sinboliko lez. Amaieran, bertaratutako guzti-tzat mahaia ipiniko dute antolatzaileek.

Geroko, sinatzeko hainbat leku eta egun zehaztu dituzte: astelehenetan lokalean bertan, 18:00etatik 19:00etara; eguenean Ibarra auzoan, 19:00etatik 20:30era; eta barikuetan plazan, 19:00etatik 20:30era.

Galdeketa prestatzeko, batzorde sustatzaile bat sortu du Gure Esku Dagok. Orain arte dinamikan lanean ibili direnez aparte, beste herritar batzuk ere gehitu dira; hogeitau bat laguneko talde hori taula gainean aurkeztuko da bihar, eta hurrengo pausoen berri emango dute.

Beste herri ugari
Maiatzaren 7an Euskal Herriko herri askotan garatuko dute galdeketa, eta Durangaldean, Elorrioz gainera, Durangon, Zornotzan eta Abadiñon ipiniko dituzte hautestontziak.

Emakume artisten lanak bistaratu gura ditu udalak

ELORRIO M.O.

Martxoaren 8ko egunaren harira, herriko emakume artisten erakusketa antolatuko du Elorrioko Udalak. Hain zuzen ere, emakume horien lanak bistaratzeko edo ezagutzera ematea da proiektuaren helburua. Horretarako, parte hartzeke deialdia egin du udalak, eta urtarrilaren 31ra arte egingo da izena emateko epea, udal arduradunek prentsa oharrean azaldu dutenez.

Elorriokoa izatea edo bertan bizitzea, hori da bete beharreko baldintza. Parte hartu gura

Parte hartzeko deialdia egin du udalak, eta hilaren 31ra arte egingo da izena emateko epea

duzen emakumeek elorriokultura@gmail.com helbidera idatzi behar dute, curriculumazein artelanaren argazkiak gehituta.

Behin lanak jasota, epaimahai batek aztertuko ditu, eta bertan erabakiko dute zein artelanek osatuko duten erakusketa, martxoaren 8ko ekitaldien bueltan.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ
EAJ



Urteberri on!

Ohikoa izaten da urte berriarekin batera helburu eta erronka berriak martxan jartzea. Badi-rudi urtearen lehen egunetan gogoz hartzen dela lana eta indartsu ekiten zaiola. Urte berria jarrerak aldatzeko garai ona ere izaten da. Atzean geratzen dira abenduko jai egunetan murgilduta iragandako urtearen ekintzak, eta gogoz begiratzen dogu aurrera norbera eta norbere ekintzak hobetzeko asmoz.

Lana da batzuen erronka, lana aurrera eraman eta gure uria hobetzeko erronka berriak martxan jartzea. Baina, tamalez, denek ez dabilen modu berean arnasten urte berriak dakartzen haize berriak. Batzuek tinko eusten deustie beraien ohitura zaharrei, eta halan jarraitzen dabilen burutzen zaizkien ekintzak aurrera eramaten, eragiten dabilen ondorioak gutxi asko arduratzen deustielarik. Noski, zer esanik ez ondorioek guztion gain dutela eragina.

Erraztasun osoz ikusten dabilen besteen begian pista, baina ez, ordea, eurenengan. Bitxia benetan zein erraz kezak diren herritar batek egindako zerbaitetaz, baina zein erraz erabakitzen dabilen beraien azken burutapena aurrera eramatea, sor daitezkeen gastu, ondorio edota arazoak kontuan izan gabe.

Ondo legoke urte berriarekin jarrerak aldatzea eta benetako lana egitea. Demokraziaren arauak berdina izan daitezela guztiontzat eta ez norbere demagogiaren interesaren arabera.

Batzuek argi dekogu zein den gure erronka, ekinez lan egitea. Baina zentzuz eta seriotasunez, bidean jartzen dizkiguten harriak kenduz. Urte berriak ilusioz hartzen dira, eta halan egingo dogu lan batzuek jarritako sasi guztien gaintetik joanda.

DURANGALDEA ASTEON

Martitegiren baraua, Sara Majarenasen alde

DURANGO > Iurdan Martitegi preso durangarrak gose greba egingo du gaur, Moulins-Yzeureko (Frantzia) espetxeko beste bi euskal presoekin batera, Sara Majarenasen askatasuna exijitzeko. Majarenasen 2 urteko alaba hiltzen saiatu zen aita joan zen astean. Martitegi gogoratu du Majarenasek kalean behar lukeela, zigorraren hiru laurdenak beteta dituelako.

'Humanitates' zikloko ikastaroak prest daude

DURANGO > Otsailaren 2ra arteko epea dago Durangoko Arte eta Historia Museoak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen duten *Humanitates* zikloaren barruko ikastaroetan izena emateko. Erdi Aroari eta euskal literaturari buruzko ikastaroak eskainiko dituzte aurten, gaztelaniaz lehenengoa eta euskaraz bigarrena.

Martxan da Kontuleku, familian irakurtzeko

BERRIZ > Haurren artean irakurtzeko ohiturak bultzatze aldera, martxan jarri dute, berriz ere, Kontuleku egitasmoa. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, ikastaro hauek lau urtetik sei urtera bitarteko haurrei zuzenduta daude. Izena eman gura duenak, euskara@berriz.eus helbidera idatzita edo 94 682 40 36 telefonora deituta egin dezake hori.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodunentzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

Gutuna

Ane, Jone, Itsaso. Berdin du zein izeneko emakume bat gehiago erantzain-etxera sartu da azken sei urteotan gizon baten partetik jasaten dituen eraso eta mehatxuak bigarrenez salatzerako. Ertzainak abisatu du gertaera hau "asmo txarreko txantxa bat" besterik ez dela legegari dagokionean. Aholkatu diote, "ez dezala gertatzen ari zaiona gehiegi zabaldu". Erasotzailea ez baita atzerritarra; bertan jaio, bizi eta bertako lagunak eta familia dituen gizon zuri elorriarra da.

Ane, Jone edo Itsaso, pasa den asteazkenean joan zen epailearen aurrera, azken sei urteetan bigarren aldiz. 2010ean, emakume hau "iraindua" izan zela erabaki zuen epaileak, Genero Indarkeriaren Aurkako legeak ez dituelako aintzat hartzen bikotekidea edo bikote-

kide ohia ez diren gizonengandik jasaten ditugun eraso matxistak. Bigarren epaiketa honetan, sei hilabeteko urrutze agindua ezarri dio erasotzaileari. Ane, Jone edo Itsasorentzat, epai honek sei hilabeteko atzerakontu bat suposatzen du, berriz ere eraso sufritzeko eta mehatxatua izateko sei hilabete falta zaizkiola diotso. Ez hori bakarrik, ertzaintzaren patruila bat izango du bere etxea, lantokia eta aisialdirako erabiltzen dituen lekuak zaintzen. Ez litzateke, ba, erasotzailea izan behar jarraitu beharrekoa?

Epaiketa bukatu eta bi orduetara gizon zuri elorriarra ohiko lekuan zegoen, ohiko kafea ohiko jendearekin hartzen. Izan ere, neurri judizial guztiak ez dira nahikoa, herritarrok ez baldin badiogu erasotzaileari erakusten gure artean ez daukala lekurik.

Garazi Arrazola Arroniz, Amaia Eguren Gongeta, Garazi Cuadrado Angoitia, Ane Blanco Urrejola, Lore Salaberria Agirre eta Nerea Lersundi Ugaldea (Elorrixoko Bilgune Feminista)

> Berbaz

Paz Carbajosa Dalmau | Mekanikaria. Mekanika formazioak ere ematen ditu | Valentzia, 1981

“Emakumeak gauza jakin batzuetan baldarrak garen mito hori apurtu behar da”

Ikuspuntu feminista duen mekanika tailerra ematen ari da Durangon, Emakumeen Jabekuntzarako ikastaroen barruan

> BERBAZ Aitziber Basauri
Ikuspuntu feminista lantzen duten mekanika tailerrak ematen ditu Paz Carbajosak. Valentziarra da eta duela zortzi urtetik hona Bilbon bizi da. Durangon ere hasi berri du mekanika tailerra, Emakumeen Jabekuntzarako ikastaroen barruan. Erremintak erabiltzea dibertigarria izan daitekeela erakutsi gura du, eta autonomia handia eman dezakeela. Beraien ibilgailuagaz buru askeak eta autonomoak izan gura duten 15 emakume-ko taldea osatu dute.

Erremintak erabiltzerako orduan emakumeen ustezko ezgaitasun edo baldartasunaren mitoa apurtu gura duzu?

Bizitzea egokitu zaigun unea gaitik, gizarteak baztertu egiten gaitu emakumeak zenbait lanbidetan. Txikitatik barneratuta dugu zenbait gauza ez direla guretzat. Ni ere horrela hezi naut. Baina, txikitatik gustatu zait ez dabilen horretan eskua sartu eta martxan jartzea. Ez dut uste lanbide zehatzik dagoenik genero jakin batentzat. Interesa piztu behar digu, hori baino ez.

Barneratuta dugu generoari lotutako lanbideak daudela?

Bai, eta badira batzuk, mekanika, elektrizitatea edo iturgintza hain justu, kasualitatea bada ere oso baliagarriak direnak egunerokoan eta ez ditugunak ezagutzen. Patriarkatuak ekin diolako esateari ezin dugula, min hartuko dugula... Ondo baino hobeto egiten dugula erakutsi gura dut. Ikasteko interesa baino ez da behar. Dibertigarria izan daiteke erremintak erabiltzea, eta autonomia handia emango digu. Ezusteko baten aurrean zirt edo zart egiteko gai izan gaitezke, eta ez diogu zertan inori deitu gorpila aldatzeko edo autoa gelditu zaigulako.

Horretarako, gizonengana jotzeko joera dugu?

Bai. Baina, emakume guztiok pozten gara itogina konpontzerakoan. Aurrezteko modua ere bada. Guztiz maskulinizatutako lanbideak dira mekanika, iturgintza, elektrizitatea...



Gizonena den mekanikaren munduan, nola hartu zaituzte? Oso matxista da?

Bai, oso matxista. Tailerrean asko harritzen dira emakume bat ikustean. Gertatu izan zait, lasai lan egin ahal izateko, nagusiarengana joan behar iza-

tea, hark bezeroari joatea eskatzeko. “Itxaron, neuk lagunduko dizut”, “zuk konponduko didazu autoa?” eta halakoak ere entzun ditut. Mesfidantza osoa dute nirekiko. Hori bai, izandako lankideak lagunak ditut egun, asko erakutsi didate.

Makina bat klixe entzungo zentituen.

Bai! Zenbat bider gertatzen da, kalean emakume bat gorpil bat aldatzen ari dela, gizonetako bat hurbiltzea berak egingo duela esateko, edo hori horrela ez dela egiten esateko. Eta baliteke edozein astakeria esatea! Hainbat gizoni aldatu diet nik gorpila, ez zekitelako! Gauza jakin batzuetan baldarrak garen mito hori apurtu behar da. Mina hartu genezake edo ez; kozinatzerakoan ere erre egin gaitezke, baina ez diogu bildurrik horri, oso barneratuta dugu.

“*Apurtuta dagoen zerbait konpontzeak ahaldundu egiten gaitu*”

“*Bizi ditugun mikro eta makro matxismoak ere antzemango ditugu*”

Emakumearen jabekuntza da helburuetako bat?

Hori da helburu nagusia. Apurtuta dagoen zerbait konpontzeak ahaldundu egiten gaitu, eta guk eginaz autoestimua sendotzen du. Gai garestuak ikustean indarra ematen digu eta egiteko gai ez garen ezer ez dagoela erakutsi. Txunditu, harritu egiten gara askotan: ikusi ditut emakumeak erremintekin trebezia hartzen hasita, euren buruagaz harrituta, eta horrek ahaldundu egiten ditu. Besteak nola moldatzen diren ikusteak ere indartu egiten ditu.

Zer landuko duzue?

Ibilgailuaren mantenua egiten ikasiko dugu, eta egon daitezkeen matxurak ezagutu eta konpontzen. Gure autoari buruz erabakitzeke autonomoak izatea lortzea da helburua; zalan-

tzak argitu eta autonomia lortzea. Dena den, ikuspuntu feminista duen tailerra izanik, egunerokoan bizi ditugun mikro edo makro matxismoak ere antzemango ditugu, denon artean aztertzeko. Kontzientzia hartu dezagun eta ez ditzagun onartu. Aurrez aurre ez begiratzeak ez du esan nahi eragiten ez digutenik. Horiek antzeman eta aintzat hartzea garrantzitsua da.

Berdintasunera heltzeko, jarra asko aldatu behar dira?

Bai. Ahalduntzea, hori da gure esku dagoena, eta hori autoestimua, autogestioagaz dago lotuta. Edozein konponketa egiteko, gizonen menpe ez egotea, beste gauza askoren artean. Gure autogestiorako leiho hori zabaldu gura dut, eta elkarrekin lan egitea erreminta oso indartsua da. Talde sendo bat lortzeak indartu egiten gaitu.

Harritu egin zaitu ikastaroak izan duen harrerak?

Harritu baino, izugarri gustatu zait. Asko gara ikusmin hori dugunak. Durangon ere talde anitza osatu da. Ibilgailuagaz buru askeak eta autonomoak izan gura duten 15 emakume dira. Batzuek erabiltzen dituzte erremintak, beste batzuek inoiz ez. Denak ikasteko gogoagaz etorri dira. Izan daitezkeen matxurak konpontzeko edo mekanikariak esandakoa ulertzeko gogoagaz.

Txikitatik izan duzu apurtutako konpontzeko grina? Beti erakarri zaitu mekanikak?

Betidanik txunditu nau! Zorrea izan dut, gainera, aitzak denetarik erremintak zituelako. Txikitatik eman didate atentzioa erremintek, horien erabilerak. 13 urtegeaz nire *Vespioa* konpontzen nuen: asteburu muntatu eta desmuntatzen nuen, azkarrago joateko nola trukatu jakin guran. Mekanika ikasi eta lanean sartu nintzeneko, maila aurreratua nekala uste dut, eta arlo horretan edozertarako gai sentitu naiz beti. Ez naiz gutxiago sentitu. Aldiz, gizonetako asko baino hobeto moldatzen nintzela sentitu dut. Mekanika zale amorratua izan naiz beti.

Txapito Guzman eta Ibarako langostinuek | Mikel Astobiza, Egoi Petite, Josu Abaunza eta Gorka Bidaurrazaga**> MUSIKA** Aimar Esteban

Josu Abaunza (baxua), Mikel Astobiza 'Asto' (gitarra), Egoi Petite (trikitixa) eta Gorka Bidaurrazaga 'Potti' (bateria) dira Txapito Guzman eta Ibarako langostinuek. Urtebete elkarrekin jotzen dabilta. Mexikoko doinuak ekarri dituzte Durangaldera, eta hainbat jai eta ekimen alaitu dituzte beraien saioekin.

Hainbat taldetan ibilitakoak zarete. Nola erabaki zenuten 'Txapito Guzman eta Ibarako langostinuek' taldea sortzea?

Mikel Astobiza: Nik rantxera bertsio arinak egin gura izan ditut betidanik. Hasieran Petitegaz elkartu nintzen, gero Abaunza ezer jakin barik batu zitzaizgun, eta, azkenik, *Pottiri* deitu genion bateria jotzeko.

Egoi Petite: *Astok* rantxera zerrrenda bat pasatu zidan, bertsioak egiteko. Hasieran ez nekien rantxerak zelan jo. Abaunza elkartu zenean, nire txabolan kantak moldatzen eta elkarri laguntzen hasi ginen. Rantxerak jotzen dituzten punkiak gara.

Nola definituko zenukete taldea?

Josu Abaunza: Mexikotik milaka kilometrotara bizi diren lau tipo rantxerak jotzen. Kantekin jolasten dugu, ez dira han entzun daitezkeen moduko rantxerak.

Gorka Bidaurrazaga: Rantxerak era kolektibo batean kantatzeko egiten ditugu.

Nondik dator izena?

J.A.: Chapo Guzman narkotrafikatzaile ezagunaren izenagaz joko bat egin genuen.

“Kantekin jolasten ondo pasatzen dugula ikusten du jendeak”

Bakixako jaietan joko dute gaur gauez, kanta propioak sortzen hasteko atsedena hartu aurretik



Rantxeren bertsioak joz ezagutzera eman du bere burua Txapito Guzman eta Ibarako langostinuek taldeak eskualdean.

G.B.: Izen luzea gura genuen. Zerbait pikantea gehitu gura genion, eta Ibarako langostinuek jarri genion atzetik.

E.P.: Izen kurioa da, eta jendea erakartzen du.

Zergatik rantxerak? Eskualdean ez dugu halako talderik.

M.A.: Askok gustatu izan zaizkit rantxerak, betidanik, eta zerbait ezberdina egiteko aukera ikus-

ten nuen. Soinu lasaiago bat jo gura izatetik dator hau guztia.

E.P.: Rantxera klasikoak soilik egitea errepikagarria izan zitekeenez, beste abesti motak gure erara ere moldatzen ditugu.

Zer ematen dizuete rantxerek?

M.A.: Askok ikasten da. Beste leku batzuetan eta publiko ezberdin baten aurrean ere jartzen gaitu. Nagusiak eta umeak gure saioe-

tan gustura daudela ikusten da.

G.B.: Benetan abesten ikasten ari naiz. Lehen inkontzienteki abesten nuen, orain logikaz, tonuak zainduz.

E.P.: Guk oso ondo ez abestean, jendea abestera bultzatzen dugu.

J.A.: Agian rantxeren teknika ez dugu asko kontrolatzen, baina soinuagaz gustura gaude.

Umoreak ere garrantzia dauka zuen saioetan.

G.B.: Jai-giroko taldea izanik, ikuskizunak behar duena egiten dugu: jendea dantzara animatu.

E.P.: Umorea beharrezkoa da. Ezberdina da publikoa begira izatea edo zugaz batera dantzan eta kantuan aritzea.

M.A.: Hasieratik esan genuen ondo pasatzea zela helburua. Hori transmititzen diogu publikoari.

Askotan bazkalostean eta egun argiz jo duzue jai-giroa alaitzeko. Zuen intentzioa da 'eguneko' talde moduan aritzea?

M.A.: Ez genuen gura gauez bakarrik jotzen duen taldea izatea. Gero, estilo arinago batez, gauez ere jai-giroa animatzeko deitzen hasi ziren.

E.P.: Txaranga antzeko bat egitea ere erabaki genuen. Tabernarik taberna beste giro bat sortzen da.

Rantxeren bertsioak egiten dituzue. Baduzue abesti propioak egiteko asmorik?

J.A.: Prozesuan gaude. Bertsioak jotzeak denbora asko eskatzen du. Ordu biko txaranga baterako errepertorioa prestatzeko denbora behar du.

M.B.: Geldiune bat egingo dugu gure kantak prestatzeko. Ateratzen ditugunekin, baliteke CD bat prestatzea. Ideia hori dugu.

Bariku honetan Bakixan joko duzue kontzertua.

J.A.: Bertso afariaren ostean.

M.B.: Kontzertu honen ondoren, geldiunea egingo dugu, gure abestiak lantzeko.

E.P.: Uda aldera bueltatuko gara, jaiekin batera. Durangaldek kanpoko herrietatik biran irteteko asmoa daukagu.

Izertitzekoak salgai jarri dituzue Facebooken.

G.B.: Zerbait atera gura genuen. Uda amaitzeaz zegoenez, eta hemen hotz egiten duenez, izertitzekoak saltzea pentsatu genuen.

J.A.: Gaizka Pagonabarragak diseinatutako logoa dute. CDA ateratzean, kamisetak eta bestelakoak ere aterako ditugu.

G.B.: Gure abestiak ateratzen ditugunean, bideoren bat ere egiteko asmoa daukagu.



Abesti propioak sortu eta hauek CD batean biltzeko asmoa dauka Durangaldek lauokoteak.

> LEHIAKETA Itsaso Esteban
Aurten Durangoko bonbardaketa-
ketaren 80. urteurrena beteko
dela kontuan hartuta, gerrak
behartuta beraien herrialde-
tik ihes egin behar duten pertsonen
egoeraz eta kultura desberdinen
arteko elkarbizitzaz hausnar-
tzera bultzatu gura ditu udalak
Durangoko gazteak. Hain zuzen
ere, gai horien inguruko haus-
narketa hauspotu gura dute
lehenengoz antolatu duten Book
Trailer lehiaketa honeguz, eta
martxoaren 31ko bonbardaketa-
ren oroimen ekitaldien barruan
egingo dute lehiaketako sari ba-
naketa ekitaldia.

Tolerantzia, kulturen arteko
elkarrizketa, elkartasuna, ber-
dintasuna eta antzerako balioak
islatzen dituzten 20 libururen ze-
rrenda eman dute Book Trailer
lehiaketako antolatzaileek —er-
diak euskaraz eta beste erdiak
gaztelaniaz—, eta liburu horien
ikus-entzunezko sinopsia egitea
da lehiaketako parte-hartzaile-
leek egin beharreko lana. Gehie-
nez ere, bi minutuko iraupena
izan dezakete bideoek. *Udabe-
rririk ankerrena, 19 kamera,*
Black is beltza, Persépolis, Abdel,
edota *El cazador de estrellas* dira
antolatzaileek lehiaketarako
aukeratu dituzten nobela eta ko-
mikien izenburuetako batzuk.

Gazteak hausnartzera gonbidatuko dituzte I. Book Trailer lehiaketan

12 eta 20 urte arteko gazteei zuzendurikoa da Durangoko Udalaren deialdia



Udaleko kultura eta immigrazio sailek eta liburutegiak antolatu dute lehiaketa, elkarlanean.

Lau sari daude jokoan: 12 eta
15 urte artekoen eta 16 eta 20
artekoaren kategorien irabazleek
tablet bana jasoko dute, abentura-
kamera bat euskarazko lanik
onenak, eta Durangoko Artea
liburu-dendan erabiltzeko 50 eu-

roko bonua emango diote publi-
koaren ustez onena den lanari.

Asteon egindako aurkezpe-
nean azaldu dutenez, lehiaketa-
ko parte-hartzaileentzat book
trailerrak egiten ikasteko doako
tailerrak eskainiko ditu Du-

rangoko Udalak. *Stop motion*
teknikari buruzko bi orduko
tailerra jasotzeko interesa duten
ikastetxeetako ordezkariak zein
norbanakoek *durangobooktrailer@gmail.com* helbidean egin
dezakete eskaria.

GEURE DURANGALDEA

**AINHOA
URIEN**
Ikaslea



Primetimen

Duela urte batzuk, 2008an,
estreinatu zen ETBn *Goazen*
telesaila. Orduko hartako
akordu zehatzik ez dut. Ikus-
ten genuela badakit, asko
gehiagorik ez. Aurten berriro
ekin diote ordukoari.

Ez dut kapitulu bat osorik
ikustea lortu, nazkatu naiz, hi-
guindu nau. Baina eutsi ahal
izan diodan zatiak nahikoa
esan dit hari buruz. Prototipo
zehatzak elikatzen dira. Per-
sonak genero eta onarpen
sozialaren araberako rolei
kateatuta. Eredu omen dire-
nekin identifikatu eta haien
jarrerak erreproduzitzera
daramatza ikusle gaztetxo eta
bizitzako norabideetan galdu
samar dabiltzanak (besteon
antzera, bide batez). Beste
pertsonaiek ridikulua trans-
mititzen dute, ikusleek ez dute
haiek bezalakoa izan nahiko
eta bazterketara bultzatzen du
horrek. Ridikulua guztiz este-
reotipatua da gainera, jarraitu
beharreko jarrerak bezala.
Eutsi diezaiokeenak ikusi de-
zala kapituluren bat edo beste,
eztabaidarako irekita dago
idatzi honen egilea.

Dudarik ez dut beste ha-
maika programa kritikagarri
egongo direla, ETBn bertan
ere bai, baina honi egokitu
zaio gaurkoan, gehienbat gaz-
tetxoei zuzendutakoa delako,
eta halako telesail baten bidez
nolako baloreak jasotzen ari
diren kontuari kezkarria
derizot.

Indarkeriak gaitzesteko
programak, bullyingari au-
rre egiteko iragarkiak... Te-
lebista publiko honek, beste
askok bezala, aurpegi garbia
du gaitzespen kanpainekin,
baina jendarte honen ondo-
ngorotzak bestelako ereduak
ditu pantaila aurrean, prime-
timen.

Ibaizabaleko ikasleen ‘Antzerki Txiki’ saioak Plateruenean ikusgai

Haur Hezkuntza zikloko ikasleen proiektua da

> ANTZERKIA Aimar Esteban
Astelehenean barikura bitar-
tean, 17:30ean, Plateruena Kafe
Antzokian antzezlan txikiak es-
kainiko dituzte. Ibaizabal Ikas-
tolan Haur Hezkuntzako goi
mailako zikloan ari diren ikas-
leak oholtza gainera igoko dira
haurrei zuzendutako hogeitun
minutuko antzezlanak aurkeztera.
Bost saio izango dira guztira, eta

fantasiazko istorioak, poetikoak
eta aniztasuna lantzen dutenak
egongo dira. Saioetarako sarre-
ra doakoa da.

“Ekimen honen helburua
ikasleek ikasitakoa benetako
egoera batean aplikatzea da”,
adierazi du Mireia Delgado
zikloko irakasleak. Ikasleek
taldeka prestatzen dute guztia:
gidoia, atrezzoak, kartela...



Ikasleek haurrentzako ikuskizun bat prestatzearen benetako ardura dute.

Laugarren aldia izango da
Antzerki Txiki Plateruenean
egiten dena. “Hasieran ikasto-
letara joaten ginen. Orain, talde
bakoitzak goizean antzezlanak
ikastola batean aurkezteaz gain,

arratsaldean Plateruenean egi-
ten dute” azaldu du. Aurreko
urteetako emaitzekin pozik dago
Delgado. “Jendea etortzen da eta
antolaketa aldetik gauzak gehi-
ago fintzen ditugu”, gaineratu du.

Amour
Marie de Jongh

Urtarrilaren 22an,
18:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín
KULTUR
GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK

URTARRILAK 23 17:30ean
ANTZERKITXIKI ANTZERKIA

URTARRILAK 26 20:00etan
KANTULAGUN KANTALDIA

Live And Beat

URTARRILAK 28 0:00etan
LIVE&BEAT-GLOW IN THE DARK JAIALDIA

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

PEDAGOGIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119/13



PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963

PSE: 57/16

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

PSE: 63/63

PODOLOGIA

ESTETIKA

OPTIKA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOIA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOIA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

PSE: 148/13

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOIA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

PSE: 16/09

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptomietriazentroa.com

PSE: 162/13

ODONTOLOGIA

PSIKOLOGIA

clínica dental hartzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

PSE: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

PSE: 112/13

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

PSE: 62/11



Mariano Estudillo aktorea gonbidatu zuten San Agustingo aurkezpena.



Ander Lipus aktoreak Zornotza Aretoko emanaldira joateko gonbita egin zuen.

> PROGRAMAZIOA I.E./J.D.

Urteko lehenengo hilabeteetarako egingo duten kultur eskaintzaren berri eman zuten, atzo, Durangoko eta Zornotzako antzokietan. Zornotza Aretorearen kasuan, gaur areto horretan *Francoren bilobari gutuna* antzezlana eskainiko duen Ander Lipus gonbidatu zuten programazioaren aurkezpena. Izan ere, obra hori izango da 2017an Zornotza Aretoran ikusgai izango den euskarazko lehenengoa. “Azaroaren 1ean estreinatu genuenetik nahiko arrakasta izaten ari gara”, adierazi zuen Lipusek, “antzoki asko bete egin dira, eta Zornotzan ere horrela gertatzea gura genuke”.

Duela sei urtetik *Errautsak* edo *Hamlet* antzezlanekin egin duten bezala, hiru antzerki taldeetako sortzaileen elkarlanetik sortu da *Francoren bilobari*

Durangoko eta Zornotzako kultur programazio berria prest dute

Atzo aurkeztu zituzten Zornotza Aretoko eta San Agustingo egitarauak

gutuna, Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren gidioan oinarrituta.

Drama eta umorea uztartzen ditu antzezlana, eta gaur egun ospitale bateko medikuen eta gaixoen paperean dihardute zazpi aktorek. “Itxi ezean, belaualdiz belaualdi igarotzen dira zauriak”, adierazi du aktoreak. “Antzerki emanaldia katarsi” edo sendatze kolektibo gisa proposatzen dute.

Luisja Ugarte kultura teknikariak azpimarratu duenez, *Francoren bilobari gutuna* ezezik, euskarazko beste hiru obra

ere izango dira urtarriletik maiatzera arte Zornotzan: *Titirikontu kontari* otsailaren 11n, *Atte hil aurretik* martxoaren 3an, eta *Gu* apirilaren 1ean. Gainera, *Frida Kalho*, *Hilos*, *Muxua*, *Perplejo* eta *Elektra* antzezlana ere izango dira datozen hileetan areto horretan ikusgai.

Antzokiko programazioak “aretoa doazen guztien gustua asetzeara” duela helburu esan zuen Ugartek atzoko agerraldian. Horrela, zuzeneko musika, zineforuma eta dantza ikuskizunak ere eskainiko dituzte.

Mariano Estudillo, etxean

2010ean Madrilera joan zenetik ibilbide arrakastatsua izan duen Mariano Estudillo 25 urteko aktore durangarrak parte hartu zuen, atzo, Durangoko San Agustin kulturgunearen datozen hiru hileetarako programazioaren aurkezpenean. Otsailaren 18an ere bertan jardungo da Federico Garcia Lorca-ren *Bodas de sangre* tragediaren moldaketa berri bat eskaintzen; hiru lagun arteko amodio istorioa kontatzen. Lau urteotan antzerki konpainia garrantzi-

tsuekin eta hiri handietako antzokietan ibili da Estudillo, Lola Herrera eta Hector Alterio aktoreekin, besteak beste. “Durangora itzultzeko gogo bizia” zeukala adierazi zuen aktoreak atzo, eta Arantza Arrazola San Agustingo kudeatzaileak beste horrenbeste esan zuen: “Marianoren ibilbide oparoa ikusita ilusio berezia egiten digu Durangon aktore lez modu profesionalean ikusi ahal izateak”.

San Agustinetik sustatutako bestelako ekintzen berri ere eman zuten atzoko aurkezpenean. Esaterako, orain 13 urte sorkuntza hedatu eta bultzatzeko helburuagaz sortu zuten beka artistikoaren aurten aldian berri. Urtarrilaren 31ra arte aurkeztu daitezke proposamenak lehiaketara. Durangoko Udaleko webgunean aurkitu daitezke oinarriak.

The Van, Incursed eta 71 dira maketa lehiaketako finalistak

Otsailaren 10ean, 23:00etan, Zornotzako Zelaieta zentroan jokatu dute finala



The Van berriztarren rock klasiko eta blues uztarketa izan da finalerako hautatu dutenatariko bat.

> MUSIKA Itsaso Esteban The Van berriztarrek, Incursed bilbotarrek eta 71 madrildarrek lortu dute Zornotzako

Udalak antolatzen duen maketa lehiaketako finalera iristea. Lehiaketan parte hartzeko izena eman zuten 17 taldeetatik

epaimahaiak zuzenekoetan aritzeko aukeratutako 9 taldeen zerrendan sartzea lortu zuten lehenengo, eta finalaurreko

kontzertuetan erakutsitako mailagatik lortu dute, orain, lehiaketako finaleraino ailegatzeara. Lehiaketako beste emanaldiak bezala, Zornotzako Zelaieta zentroko kontzertu gelan izango da finala, otsailaren 10ean, 23:00etan.

Hiru proposamen musikal desberdin izango dira final horretan entzungai: Berrizko The Van talde gaztearen rock & roll klasiko eta blues ukituko kantak, Incursed taldearen heavya, eta 71 madrildarren pop rocka. Hogei minutuko emanaldia eskainiko du talde bakoitzak finalean, eta lehiaketako sari banaketa egingo dute, ondoren.

Otsailaren 10eko kontzertuen ostean, epaimahaiak irabazle izendatzen duen taldeak 1.500 euroko sari nagusia eskuratuko du, eta epaimahaiaren ustez euskarazko kantarik onena aurkezten duen taldeak, berriz, 500 euroko sari berezia.

Maketa lehiaketa honen laugarren finala da The Van, Incursed eta 71 taldeek jokatu dutena. Aurreko edizioetan, Kilauea, Mockers eta Desore taldeek jaso zuten sari nagusia.

Gazteen arte lehiaketako “maila bikaina” azpimarratu dute

> ARTE PLASTIKOAK I. Esteban

Urtarrilaren 8an, Ezkurdiko udal aretoan egin zuten Durangaldeko gazteen arte lehiaketako sari banaketa ekitaldia, eta 15era arte areto horretan egon dira lan guztiak ikusgai. Gazteek lehiaketara aurkezturiko lanen “maila bikaina” nabarmendu zuten antolatzaileek.

Durangoko ikastetxeetako 12 eta 18 urte arteko eskualdeko gazteei zuzenduriko margo lehiaketa izan da aipaturikoa, eta lau sari nagusi eta hamar akzesit banatu dituzte parte-hartzaileen artean. Olatz Elgezuaeren *Elefante* margolanari eman dio epaimahaiak lehenengo saria, bigarren saria Irene Soldevillaren *A la deriva* lanak jaso du, eta *Martin* obra gaz hirugarren saria eskuratu du Nerea Larrinagak. Sari berezia Eukene Navasen *La vida a color* lanari eman diote.

Hamabi pilotarigaz, emakumeen torneoan ordezkari gehien duen herria da Zornotza

Seme pilotarien amak ziren; orain pilota klub berri bat sortu eta bertan dabilzan pilotariak dira



Erdu Pilotan klubeko emakumeen taldea entrenamendu saio batean. Lehiar Elorriaga



Eguaztenetan txapelketari begirako entrenamenduak egiten dituzte. L.E.

batean, berbetan aritu ginen. Zergatik gure herrian antzerako zerbait egin ez?” gogoratu du.

Galdera horren erantzuna Erdu Pilotan kluba izan zen. Hainbat adar ditu, eta emakumeen pilota da horietako bat. Gaur egun, hamabi pilotari dituzte. Gazteagoa den bat kenduta, gainerakoak 25-50 urte artekoak dira. “Pilota gustatzen zaigulako gabilta, baina, etorkizunera begira, neska gazteei bide berriak irekitzen laguntzea ere gura dugu”, onartu du Artarazek.

Izan ere, mutiletan umetatik nagusietara arte pilotan trebatzeko egitura mailakatu sendoa dagoen bitartean, nesketan hutsune nabariak daude. Azken urteetan gero eta pauso txiki gehiago ematen ari diren arren, oraindik lan handia dago egiteko. Egoera hori ondo ezagutzen du Iker Hormaetxeak, bizitza osoa darama-eta pilotari lotuta. “Umetan neska-mutilak batera aritzen dira pilotan. Baina kadeteen adinera [14 bat urte] heltzen direnean sortzen da arazoa. Alde fisikoa handitu egiten da, pilotak pisutsuagoak dira... Neskek ez dute ordura arte gozatu duten beste gozatzen, eta utzi egiten dute. Baina kirolariak dira, kirola gustatzen zaie, eta beste kirol batzuetan hasten dira, saskibaloian edo futbolean, esaterako. Hori pena da eta horrelako zenbat kasu ikusi ditudan!”, azaldu du klubeko kide eta entrenatzaileak.

Horrela, “emakumeek osatutako taldeak hasi duen bide berria behetik etorriko direnekin lotzea” dute helburu. Adin tarte jakin batera heltzean pilota uztea erabakitzen dutenez gero “alternatiba” izan gura dute. “Apurka joango gara. Helburu gehiegi batera gauzatu nahia okerrerako izan daiteke. Lehenengo, talde hau egonkortu gura dugu, ondoren gaztetxoeren eremua lantzen hasteko”, dio Hormaetxeak.

Era berean, emakumeen esku pilota sustatzeko, federazioek eta herrietako klubek elkarlanean aritu behar dutela uste du, modu koordinatuan lan egin behar dutela: batzuek pilotariak trebatzen eta besteek pilotariei lehiatzeko aukerak eskaintzen. Gaur egun emakumeen paleta goma modalitateak duen antzerako txapelketa zirkuitua saretu beharra ikusten du esku pilotan ere.

Txapelketaren hasiera

Zornotzako klubak sei bikote izango ditu lehen mailako bina-kako txapelketan: Janire Barayazarra-Eneritz Barayazarra, Dayneris Del Val, Garbiñe Artaraz, Garbiñe Zunikarai-Idurre Oregi, Nerea Urdangarin-Marian Zamalloa, Ana Lopez-Iratxe Zubikarai eta Jone Aranguren-Jone Zabala.

Astean birritan entrenatzen dira eta, eguaztenetako saioetan, txapelketara begirako prestaketa berezia burutzen dute. Pilotan jokatuz gozatzea da helburu nagusia, baina martxoaren 5eko finalak Zornotzan bertan jokatuko direla kontuan hartuta, lan ona egin gura dute. “Erantzukizun puntu bat ere sumatzen dugu”, onartu du Hormaetxeak.

► PILOTA Joseba Derteano

Asteburu honetan Emakumeen Master Cup txapelketa hasiko dute, 75 pilotarigaz. Horietatik hamabi zornotzarrak dira. Ez dago hain ordezkarriz zabala duen beste herririk. Erdu Pilotan pilota klubari eta hura sortu zuten emakumeei zor zaie datu hori.

Erdu Pilotan iaz sortutako proiektu berria da. Euren semeak pilota entrenamenduetara eramaten zituzten ama batzuek piztu zuten txinparta. Garbiñe Artaraz da horietako bat. “Larrabetzuko neska pilotariak Zornotzan jokatu zuten egun



Dayneris Del Val
Pilotaria
Kuba

Dayneris Del Val-ek lau urte daramatza Zornotzan. Erdu Pilotan sortu zenetik dabil pilotan, eta txapelketan parte hartuko du. Hasieran modalitate batera egokitzea kostatu egin ziz-

“Finala Zornotzako pilotari batek jokatzea itzela litzateke”

tzaiola onartu du, baina gaur egun gustura dabil eta taldeko giroa azpimarratu du.

Pilota ezaguna da Kuban?

Bai. Zesta gehiago, baina esku pilota ere bai. Euskal Herriak eta Kubak hartueman estua izan dute eta pilota da horren adibide bat.

Zergatik hasi zinen pilotan?

Alde batetik, integrazioerako bide bat zelako hasi nintzen. Bes-

tetik, kirola egitea gustatzen zait, eta taldea sortu zenean animatuko ote nintzen galdetu zidaten. Interesgarria iruditu zitzaidan eta baietz esan nuen.

Zelako esperientzia izan da orain artekoa?

Oso ona. Hasieran apur bat desanimatuta nengoen, ez nuelako diziplina ezagutzen eta kostatu egiten zitzaidalako. Apurka teknika hartzen joan nintzen, eta gaur egun gustura

eta pozik nabil. Gainera, hainbat emakume gabilta, eta giro ona dago.

Sortu duzuen taldea neska gazteentzat amua izan daiteke?

Bai, jakina. Bultzakada bat izan daiteke esku pilotan hasi daitezen. Aukera bat lotsa galdu eta kirol hau probatu dezaten. Esku pilota gizonen kirola dela eta horrelakoak entzuten dira, baina, mutila edo neska izan,

horrek ez du zerikusirik. Esku pilota kirol bat da eta denek praktikatu dezakete.

Txapelketako finala Zornotzan jokatuko da.

Etxean jokatzeak erantzukizun puntu bat gehitzen dio gure jardunari. Lan ona egin gura dugu. Zornotzako pilotariren batek etxean finala jokatzea itzela litzateke. Jendaurrean jokatzea ere ez da erraza. Horregatik, Hormak [Iker Hormaetxe] beti esaten digu entrenamenduak benetako partiduak balira lez hartzeko. Behin hori esanda, gure helburua partidu bakoi-tzagaz gozatzea da, gustatzen zaigunagaz ondo pasatzea.

Etapa loriatsua amaituta, proiektu berri baten hasieran dago orain Abadiño

Urte askoan sokatira taldeko bizkarrezurra izan diren hainbat tiralarik taldea utzi dute aurtan

> SOKATIRA J. Derteano
Abadiño Sokatira Taldea etapa berri baten hasieran dago. Hamarkada batean baino gehiagoan goma gaineko talderik arrakastatsuen izan da, eta zakukada bat domina irabazi ditu Euskal Herriko txapelketan zein mundukoan. Baina etapa

loriatsu hori ahalbidetu duten hainbat tiralarik taldea utzi edo aldi baterako atsedena hartu dute aurtan. Beraz, goma gaineko txapelketa hasi berria denean, ez dago aurreko urteetako emaitzarik eskatzerik. Taldeari eustea, ahalik eta ondoena lehiatzea eta apurka-apurka etorkizunera

begirako zimenduak lantzea da aurtengo helburua.

Fernando Zumakero, Alex Lasuen, Asier Arrieta, Asier Iturriagaetxebarria eta Gorka Larrañaga dira nork bere arrazoiengatik aurtan taldea utzi dutenetako batzuk. Abadiño Sokatira Taldeko bizkarrezurreko

parte izan dira urte askoan. Datorren urtean munduko txapelketa dagoenez, baliteke baten bat bueltatzea, baina bitartean "txipa aldatu" beharko dutela azaldu du Edu Mendizabal entrenatzaileak. "Urte batzuetan sufritzea egokituko zaigu. Aurtan hamar tiralari baino ez ditugu, oso justu gaude alde horretatik, eta denboraldiari ahalik eta ondoena aurre egitea da helburua", gehitu du. Dominen borrokan aritzea ez da helburu erreala, horretara ohituta dauden arren. "Joan zen asteburuan 680 kilora arteko finalean zazpigarren amaitu genuen, eta oso pozik gaude egindako tiraldiarekin, beraz imajinatu", dio.

Horrela, "pazientzia" da aurrera begirako jarrera. Gazte berriak batzea eta urterik urtera zailtzen joatea gura dute, emaitzak lortzeko urte batzuetako lana beharrezkoa dela jakinda. Zapatuan 640 kilora arteko txapelketa jokatu dute Mungian.



Abadiño Sokatira Taldea goma gaineko erreferentia izan da urte askoan.

Amorebieta hiru puntuen bila, zuloatik irteteko

> FUTBOLA J.D.
Amorebieta futbol taldea Bigarren B Mailako jaitsiera postuetatik irten guran dabil denboraldi osoan zehar. Txarto hasi ziren eta ezin dute zuloatik aterako lituzkeen emaitza bolada onik kateatu. Bihar, 17:00etan, Real Madrid Castilla taldeak bisitatuko du Urritxe, eta urdinek beharrezko dute hiru puntuak batzea. Real Madrid Castillak talentu handiko jokalarik gazteak ditu. Zinedine Zidane seme bik ere talde horretan jokatzeko dute.

Ariznabarretak eta Garciak Bizkaiko txapela berri dute Abadiñon

> KORRIKA J. Derteano
Abadiñoko krosaren ostean, ia-zoko toki berean jarraitzen dute Bizkaiko txapelek: Oier Ariznabarreta (Durango Kirol Taldea) durangarraren eta Iraia Garcia zornotzarraren buruan. Euraren ondorioz lokaztutako zirkuituan onenak izan ziren joan zen domekan.

Abadiñoko proban garbi geratu zen Bizkaiko talderik indartsuenetakoa eskualdean daudela. Gizonetan Durangaldea Running-eko Txomin Marañonek eta DKTko Ibon San Miguelek osatu zuten podiuma.

Durangaldea Running taldeak, guztira, sei domina eskuratu zituen, Durango Kirol Taldeak bost eta Zornotza kirol elkarteak bat. Hain zuzen, Jokin Totorikak brontzezko domina bat kolokatu zuen Zornotzako taldearentzat.

Arbeo eta Villa
Gainerako dominen artean, aipamen berezia merezi du Durangaldea Running-eko June Arbeok eta Aritz Villak juniorretan lortutako emaitzak. Arbeo Bizkaiko txapeldun geratu da Abadiñoko krosetan eta

Villa azpitxapelduna izan da. Postu horiek sarritan errepikatu dituzte aurtan. Orain arte denboraldi bikaina daramate korrikalari biek. Aurtengo den-



OIER ARIZNABARRETA

boraldian parte hartu duten lau lasterketetan (Usansolo, Laudio, Zornotza eta Abadiñoko krosetan) aurreneko bi tokiak beti eurentzat dira dira.

ADITUAREN TXOKOA

ENERITZ ITURRIAGA

Elkar Kirolak emakumeen taldeko zuzendaria



Bizitza bakarra dugu

Egun batzuk joan dira Gabonetatik. Bueno, hobeto esanda, familiako afariak, enpresako festak, turroia, otarrainxkak, txulekak, opilak, opariak, bidaiak... izan genituenetik. Bai, Gabonak horrelakoak izaten dira gehien-goarentzat. Hamabost egun horiek, azkenean, hilabete bihurtzen dira, batez ere, elikadurari dagokionez.

Badaezpada, jatekoa bost urterako lain egiten delako. Baina, gero datoz komeriak. Bai. Zenbatek esan didate jada, urte berriari begira "zaintzen hasiko naiz, kirol gehiago praktikatu dut", bata eta bestea... Hori sumatzen al duzue? Kia! Nire inguruan ez behintzat. Elikadura eta nutrizioaren arloan lan egiten dut, eta nik ikusten ditudan gehiegikeriak gure osasunaren kontra joaten dira batzuetan. Gauza serioa da.

Urtetik urtera konturatzen naiz, urtarrileko helburuetako bat kirola egiten hastera izaten dela askorentzat. Gimnasioak, kirol-dendak eta antzerakoak topera hasten dira urtarrilean. Baina nik galdera bat botako dut. Badakigu kirola osasunerako ona dela, beraz, kirola eguneroko ohitura moduan hartzen badugu, eta ez moda baten moduan, ez dugu pentsatzen, gure gorputzaren onerako izango dela? Kirola eguneko saio bat izan beharko genuke, jatearen edo loaren moduan. Orduan konturatuko ginatke estres gutxiago, arduraz gutxiago, gorputz indartsuagoa... eta beste hainbat gauza on ekarri litzakeela.

Urte berriko helburu berriekin jarraitzen dugu? Edo kirola ohitura bihurtuko dugu? Zeuk aukeratu! Bizitza bakarra daukagu eta.

Smurfit Kappa
Central Forestal

48 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 IURRETA
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194



Etxebizitzak salgai 1, 2, 3 eta 4 logelatakoak



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

Durangoko herrigunean

Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak

***Etorri
ikustera!***

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrión eta Durangon

Apustu seguru bat eta hautagai bi bigarren mailako areto-futboleant

Abadiñoko Txopoa, Mendibeltz eta Racing Tolosto aurreneko postuetan daude



Durango Mendibeltz taldearen aurtengo argazki ofiziala. Mendibeltz

> ARETO-FUTBOLA J. Derteano Areto-futboleko Bigarren Erregionaleko bigarren itzulia hasi berria da, eta Durangaldeko hiru talde aurreneko hiru postuetan daude: Abadiñoko Txopoa, Durango Mendibeltz eta Racing Tolosto. Talde bi zuzenean

igoko diren eta hirugarrenak promozioa jokatu duen mailan, inoizko denboraldirik onena izan daiteke eskualdearentzat.

Abadiñoko Txopoa apustu segurua da. Aurten sortu duten taldea den arren, goragoko mailan

letan aritutako jokalariai dugu, eta eroso dabil. Jokatu duen berderatzi partiduak irabazi ditu, neurketa bakoitzeko, batez beste, sei goletik gora sartuta. Joan zen asteberuan 10-0 jipoitu zuen Bermeo. Pizgarri moduan, igoera "partidu denak irabazita" lortzea jarri dute helburu moduan, Egoitz Diaz entrenatzaileak onartu duenez. Era berean, argi du bigarren itzulia garaipenak lortzea gaitzagoa izango dena, aurkariak lehen itzuliko esperientziatik ikasiko dutelako.

Mendibeltz ere igoera postuan dago, bigarren. Urte askoan elkarregaz jokatzen dabilen blokeak klubaren historiako bigarren igoera lortu dezake aurten. 2009an izan zen aurrenekoa. Jokalari batzuk erretiratu, eta gazteei tokia utzi zieten. Hurrengo urtean, baina, jaitsi egin ziren. Orduan taldera batu ziren gazteak "esperientzia hartzen" eta urterik urtera "elkar hobeto ezagutzen joan" dira, Luismi Reyes presidentearen ustez, eta horren fruituak jasotzen ari dira aurten. Gainera, orain zazpi denboraldi galdutako mailara igotzea pizgarria da durangarentzat.

Racing Tolosto taldea orain bost urte sortu zuten eta bere ibilbideko lehenengo igoera lortzeko borrokan dabil. Iazko taldea osatzen zuten 13 jokalaritatik lauk bakarrik jarraitzen dute. "Aurten besteko aldaketarik ez dugu inoiz izan", dio Ander Bilbao taldeko kapitainak. Baina etorritako berriak (batzuk futbolitik) oso ondo egokitu dira eta taldea igoerako promozio postuan kokatuta dago.

Herri kirolen lehen topaketa hartuko du Durangok, etzi

Landako Gunean batuko dira 11:00etatik aurrera

> HERRI KIROLAK J. Derteano Gaztetxoaren artean herri kirolarekiko zaletasuna sustatzeko, urtean zehar hainbat topaketa antolatzen ditu Bizkaiko Aldundiak, eta aurten, lehenengoa, Durangon izango da, domeka honetan, goizeko 11:00etatik aurrera. Landako Gunean benjamin eta kimu mailako hamahiru talde batuko dira. Durango Pilotazale klubak talde bana aurkeztuko du maila bakoitzean.

Hauek dira burutuko dituzten proba batzuk: zaku eramatea, txinga eramatea, lokotx bilketa, ingudea jasotzea eta sokatira.

Durango Pilotazale klubak talde bi aurkeztuko ditu benjaminetan eta kimu mailan

Abadiñok onenen artean jarraitu gura du xakean

Garaipen bategaz hasi dute Euskadiko liga gorena

> XAKEA J. D. Yeray Galtzagorri, Alain Prieto, Diego Sarralde eta Rodrigo Sarralde. Laukote honek du Abadiño Xake Taldea Ohorezko Mailan, Euskadiko mailarik altuenean, mantentzeko ardura. Momentuz, hasiera ona eman diote ligari, Leioaren kontra jokoan zeuden lau puntuetatik 2,5 batuta. "Estuasunik ez igarotzeko taldea dugu", uste du xake taldeko Ibon Martinek.

Beheragoko mailetan Durangaldeko beste hainbat talde dabilza lehian. Bizkaiko Maila Gorenean Zornotzak bina berdindu zuen lehen jardunaldian Erandiora egindako bisitan. Lehenengo Mailan Elorrioko Zaldi Baltza Ak hiru puntu baliotsu batu zituen etxean. Azkenik, Durango Larrasoloeta Ak eta Zuri-Baltzak berdindu egin zuten, eta talde bakoitzak puntu bi batu zituen.

AGENDA
> FUTBOLA
BIGARREN B MAILA (gizonak)
Amorebieta - Real Madrid Castilla · Zapatuan, 17:00etan, Urritxe futbol zelaian.
HIRUGARREN MAILA (gizonak)
Durango Kulturala - Getxo · Zapatuan, 16:45ean, Tabira futbol zelaian.
EUSKAL LIGA (emakumeak)
Elorrio - Gasteizko Aurrera · Zapatuan, 16:00etan, Eleizalde futbol zelaian.
MAILA GORENA (gizonak)
Abadiño - Galea · Zapatuan, 15:30ean, Astola futbol zelaian.
BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)
Zaldia B - Fruiz · Domekan, 16:30ean, Solobarría futbol zelaian.
Berriz B - Iraultza · Zapatuan, 16:30ean, Berrizburu futbol zelaian.
EMAKUMEEN LIGA
Ezkurdi - Leioa B · Domekan, 13:00etan, Tabira futbol zelaian.
> ARETO-FUTBOLA
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)
Mallabia B - Zuentzat · Domekan, 15:35ean, Zaldibarko kiroldegian.
BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)
Abadiñoko Txopoa - Kukuyaga B · Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.
Mendibeltz - Gu Lagunak · Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian.
> SASKIBALOA
EUSKADIKO LEHEN MAILA (emakumeak)
Tabirako Baqué - Unamuno · Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.
LEHEN ERREGIONALA
Anbotopeko - La Salle · Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.
> ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA (gizonak)
Durango Nissan Gaurisa - Ourense · Domekan, 12:00etan, Arripausuetan.
EUSKAL LIGA (gizonak)
Zornotza errugbi taldea - Elorrio-Durango · Domekan, 11:00etan, Zornotzako errugbi zelaian.

ALBERDI HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



GREMIOEN GIDA



ITURGINTZA

Mallabiena



M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.

**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



LEIHOAK

Leihoak

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO
info@ventanas-durango
Tel.: 652 736 339
www.ventanas-durango.com



ARKITEKTURA

**ARKI
TEK
SAN**

· OBREN ZUZENDARITZA
· PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
· ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
· NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK
· ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
· NEURKETAK, PLANOAK
· ETA AURREKONTUAK EGITEA
· ERAGINKORTASUN
· ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
NIZETO URKIZU 12, ELORRIO
INFO@ARKITEKSAN.COM

**EIT
ITE**
ERAIKUNTZEN
IKUSKARITZA TEKNIKOA
AZTERKETA
259€tik AURRERA!



ZURGINTZA

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

> Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotarixuena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trasteleku.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trasteleku.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trasteleku.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalata 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

ZABALE



• 90,75m2 erabilgarri: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun eta bat dutzarekin, 2 balkoi eta garajea. Oso orientazio onekoa. **254.000€.**

SASIKOA



• 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komun bat, ganbara eta garajea itxita. **245.000€.**

FRANCISCO IBARRA



• 105 m2 erabilgarriko etxebizitza: 4 logela, egongela zabal, sukaldea jarrita, 2 komun eta balkoi handi bat. Berogailua eta igogailua. Bizitzera sartzeko prest. **230.000€.**

TABIRA KALEA



• Dotorea. Hegoaldera begira dagoen apartamentua Tabira aldean. Logela bat, egongela, sukaldea jarrita, komuna, balkoia eta ganbara velux-ekin. **180.000€.**

KOMENTU KALEA



• Erdialdean etxebizitza, egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. **130.000€ / Negoziagarria.**

ARAMOTZ



• 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. Teilatu berritua. Instalazio elektrikoa jarrita. Egoera oso onean. **98.000€ € Negoziagarria**

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzera sartzeko moduan. 80.000€.

- MATIENA. 3 logela. Komuna. Berriztatua. 2 Balkoi. Eguzkitsua. 143.000€.

- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Dena berriztatua. 115.000€.

- DURANGO 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. 85.000€.

- ATXONDO: 90 m2. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Esekitokia. Egongela. Terraza. 80.000€.

- TABIRA. 75 m2. 2 logela. Komuna. Sukaldea eta egongela. Guztia berritua. 115.000€.

ETXEBITZAK SALGAI

- MIKELDI. APARTAMENTUA. Erdi-berria Erdialdean. Guztia kanpora begira. Altua. Ganbararekin. 165.000€.

- LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. 229.500€.

- ABADIÑO. Erdi-berria. 83 m2. 2 logela. Komuna. Egongela. Terraza. Sukaldea. Trasteleku. Garajea. 155.000€.

- BASERRIA. Berriztatua. 295 m2. 395.000€.

- BASERRIA. Sarria. Familiabakarrekoa. 377 m2. Berriztatua. Lursailarekin. 8.000 m2.

- ABADIÑO. KAMIÑOPEA. 3 logela. 2 komun. Ganbara. Alokairua erosteko aukerarekin. 130.000€.

- Erdialdean. 134 m2. 4 logela. 2 Komun. Egongela zabal. Sukaldea esekitokiarekin. Garajea. 230.000€.

- ZALDIBAR. Iturritxo. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. 135.000€.

- ZALDIBAR. Erdialdean. Erdi berria. 45 m2-ko terraza. 2 logela. Komuna. Egongela. Garajea itxita. 148.312€.

- M. TORRE. 113 m2. 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Trasteleku eta garajea. 220.000€.

- ANDRA MARI. 112 m2. 4 logela. Egongela. Trasteleku. 140.000€.

- F.J. ZUMARRAGA. 110 m2. 4 logela. Sukaldea-despentsa. Egongela. Galeria. 169.000€ (negoziagarria)

- C/ ASKONDO. 95m2. 3 logela. Komuna. Egongela terrazarekin. Sukaldea. Eguzkitsua. Berriztatua 195.000€, negoziagarria

- ATIKOA. Terraza eta guztia, 80 m2. 3 logela. 2 Komun. Egongela. Sukaldea. Esekitokia. Trasteleku eta garajea. 250.000€.

- J. M. ALTUNA. 100 m2. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekitokia. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. 269.000€.

- SAN ROKE: BERRIA. Pisu altua, 80 m2-koa. 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela zabal. Ganbara. Garajea aukeran. 247.000€.

- SAN AGUSTINALDE. Erdialdean. 103 m2. Berritua. 3 logela. Komuna. Terraza. 260.000€.

- MATIENA. 3 logela. Komuna. 150.000€.

- F.J. ZUMARRAGA. 100 m2. 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- K/ERMODO. ALOKAIUA. 600€.

- ABADIÑO. Ile-apaindegia. 50m2. Alokairua: 600€. SALMENTA: 75.000€.

- ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabal. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOIA.

- F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA. 150.000€.

- SAN FRANCISCO. 160 m2. Egokitua. 210.000€.


- IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIUA. 500€.

- KOMENTUKALE. 50 m2. Guztia jarrita. 85.000€.

- DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2. 186.000€.

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urtarrilaren 20an, 21:00etan,
Zornotza Aretoan

Francoren bilobari gutuna

Frankismoko zigorrik gabeko krimenek eragindako min pertsonal eta kolektiboa arintzeko ariketa da egileen berbetan, 'Francoren bilobari gutuna' antzezlan. Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategia konpainiek sortu dute obra, Unai Iturriaga eta Igor Elortza durangarrek idatzirik gidoiagaz.

Musika

:: DURANGO

URTARRILAREN 26an

20:00etan, Kantulagun, Plateruenean.

:: ELORRIO

URTARRILAREN 20an

22:30etan, Eraso + Humus, Gaztetxean.

Jaiak

:: BERRIZ

URTARRILAREN 23ra arte

Antonio Deuna sari nagusiko idi probak.

URTARRILAREN 24an

19:00etan, Donien Atxa kentzea.

21:00etan, olakuetarren afaria.

:: IURRETA (Bakixa)

URTARRILAREN 20an

12:00etan, meza.

18:00etan, igel txapelketa.

21:00etan, bertso afaria Eneko Abasolo 'Abarkas', Gorka Lazkano eta Igor Galarzagaz. Jarraian, Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuk kontzertuan.

URTARRILAREN 21ean

11:30etan, tiro txapelketa.

21:00etan, bakailao txapelketa.

00:00etan, danborrada, eta ondoren, Luhartzegaz erromeria.

URTARRILAREN 22an

11:00etan, meza lurretako koroak abestuta. Jarraian, Mikel Deuna dantza taldearen emanaldia.

17:00etan, briska txapelketa. Maiztegi H.E. dantza taldea, ume jolasak eta txokolatada.

Kontalaria

:: ABADIÑO

URTARRILAREN 25ean

18:00etan, Egoitz Etxebarria, Udal Mediatekan.

Erakusketa

:: BERRIZ

OTSAILAREN 4ra arte

Edu Locomotororen erakusketa, Kultur Etxean.

:: DURANGO

URTARRILEAN

Javier Minaren 'Circus mundi' erakusketa, Museoa.

:: ELORRIO

URTARRILAREN 23tik 29ra

Kurdistan gerraz haratago, Gaztetxean.

URTARRILAREN 30era arte

Sergio Saezen 'Orfeo & Eurifice', Iturri kultur etxean.

:: ZORNOTZA

URTARRILAREN 31ra arte

'Sahara, la última colonia de África', Zelaietan.

Zinema

:: ZORNOTZA

URTARRILAREN 25ean

19:00etan, 'El campamento de la resistencia saharai' dokumentalaren aurkezpena eta emanaldia, Zelaietan.

URTARRILAREN 27an

21:00etan, Kimuak 2016 film laburren hautaketa, Zornotza Aretoan.

Irteera

:: BERRIZ

OTSAILAK 10, 11, 12

Asuntze eta Zaldai mendi taldeekin, Formigaleko eski estaziora irteera. Informazio gehiago: www.zaldaimenditaldea.org.

Tailerra

:: DURANGO

URTARRILAREN 25ean

10:00-13:30, zortzi eta hamabi urte artekoentzako lapbook tailerra, Bibliotekan.

Antzerkia

:: BERRIZ

URTARRILAREN 20an

18:00etan, Marikixkur eta hiru hartzak, Kultur Etxean.

:: DURANGO

URTARRILAREN 22an

18:00etan, Amour, San Agustin kulturgunean.

URTARRILAREN 23an

17:30etan, Antzerki Txiki emanaldia, Ibaizabal ikastolako ikasleen eskutik, Plateruenean.

:: ZORNOTZA

URTARRILAREN 20an

21:00etan, Francoren bilobari gutuna, Zornotza Aretoan.



:: BERRIZ KULTUR ETXEA

Paterson

. barikua 20: 22:00
. domeka 22: 19:00

:: DURANGO ZUGAZA

Toni Erdmann

. barikua 20: 19:00-21:30
. zapatua 21: 19:30-21:30
. domeka 22: 17:00-20:00
. astelehena 23: 18:30-20:30
. martitzena 24: 20:00
. eguaztena 25: 20:00 (jatorrizko hizkuntza azpiztituluekin)

Los del túnel

. barikua 20: 19:30-22:00
. zapatua 21: 19:30-22:30
. domeka 22: 19:00-21:00
. astelehena 23: 18:30-21:15
. martitzena 24: 20:00

Contratiempo

. barikua 20: 19:30-22:00
. zapatua 21: 19:30-22:30
. domeka 22: 19:00-21:00
. astelehena 23: 18:30-21:00
. martitzena 24: 20:00
. eguaztena 25: 20:00

iCanta!

. zapatua 21: 17:00
. domeka 22: 16:30

Orm elurretako erresuma

. zapatua 21: 17:00
. domeka 22: 16:30

Los exámenes

. eguaztena 25: 20:30

:: ELORRIO ARRIOLA

Silencio

. zapatua 21: 22:00
. domeka 22: 20:00
. astelehena 23: 20:00

iCanta!

. domeka 22: 17:00

:: ZORNOTZA ZORNOTZA ARETOA

Comanchería

. zapatua 21: 19:30-22:00
. domeka 22: 20:00
. astelehena 23: 20:15
. martitzena 24: 20:15

Adagio

. martitzena 24: 20:15

Urtarrilaren 25ean, 19:00etan, Zornotzan

Sahararren erresistentziaz

Urtarril amaierara arte Zornotzako Zelaieta zentroan ikusgai izango den 'Sahara, la última colonia de África' erakusketaren osagarri antolatuko dute 'El campamento de la Resistencia Saharai' dokumentalaren emanaldia. Luis María Güel zuzendariaren lana da Ouali Omarrek Zelaietan aurkeztuko duena. 2010ean Marokoko armadak Sahara Mendebaldeko erresistentzia kanpamenturik handiena borfizki desegin zueneko kontaketa du filmak.



> BOTIKAK**BARIKUA, 20**
09:00-09:00**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**ZAPATUA, 21**
09:00-09:00**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-13:30

Etxebarria
Montevideo etorb. 2 - Durango**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**De Diego**
Intxaurren 22. - Durango**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Jaio-Olabarrieta**
Errekakale 6 - Elorrio**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-14:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**DOMEKA, 22** · 09:00-09:00**Etxebarria**
Montevideo etorb. 2 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 23**
09:00-09:00**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**MARTITZENA, 24**
09:00-09:00**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**EGUAZTENA, 25**
09:00-09:00**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**EGUENA, 26**
09:00-09:00**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org
eguziteneko 14:00ak arteko epea**Ermodo, 11 · DURANGO**
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f **Gozatu Gozotegia**

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

**> Zorionak, Julen!** Gaur etxeko txikiaren lehenengo urtebetetzea ospatuko dugu, muxu potolo bat izeko eta osabaren partez!**> Urtarrilaren 15 eta 16an aittite Jesusen eta Beñaten urtebetetze izen zan!** Zorionak etxeko danen partez! Asko maite zaitzau!**> Zorionak, Markel!** Urtarrilaren 19an etxeko txikitxuak urtetxo bat bete zuen! Muxu handi bat Ane, amatxo era aitatxoren partez!**> Larunbatean Garazik 7 urte egingo ditu:** handi egin zaigu etxeko txikiaren! Zorionak! Ongi pasa eguna. Pottak eta musuak!**> Zorionak printzesa, 4 urtetxo!** Belarrietatik tirakada handi bat familia guztiaren partez, igandean ospatuko dugu denok elkarrekin.**> Urtarrilaren 23an Mariak 8 urte!** Pozik ibili zure egunien, kandela guztiek amatau eta ondo ospatu egizu lagun eta familiagaz. Musue, etxekuen partez.**> Zorionak, Aritz!** Urtarrilaren 13an 9 urte egin zituen. Muxu handi bat etxekuen partez.**> Zoixonak, Jon Beitia and Jon Vidal!** Ondo hasi urtea eta hobeto amatxu.**> EGURALDIA**

ZAPATUA 12° / 1° ☀

DOMEKA 9° / 3° ☁

ASTELEHENA 9° / 4° ☁

MARTITZENA 9° / 1° ☀

EGUAZTENA 12° / 3° ☀

EGUENA 13° / 4° ☁

merkataritza gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

merkataritza gida sareananboto.org/gidaMerkataritza gidan agertzeko deitu:
946 217 902

“Umeak egunero pilotan jokatzeko eta disfrutatzen ikustea da politena”

30 urtez Oizpe pilota eskolako ardura eramane zuten Felix eta Juanito Uribarri, eta omendu egin dituzte

> AKUILUA Aitziber Basauri Berrizko pilotazaleen eskutik omenaldi sentitua jaso dute Uribarri anaiek. “Hunkigarria” izan da, aitortu dutenez. Dena den, urteetan umeengandik jasotako “maitasunak” eman die poztasunik gehien. Ehuneko ehun ezin emanda, Oizpe pilota eskola utzi zutela 13 urte izango dira.

‘Gure txapelak zuenak dira’ diote jasotako txapelek. **Juanito Uribarri:** Bai. Maila gorenean egon da Berriz! (barriz). Hunkigarria izan da omenaldia. **Felix Uribarri:** Omenaldi xumea eta hunkigarria izan da. Dena den, beti sentitu dut esker on hori. Ni neu ere oso eskertuta nago eman didatenagatik, maitasun berezia hartzen diezu umeei.

Herrian oso maitatuak zarete. **F. U.:** Bai, dudarik gabe. Gureine profesional dauz Berrizen, baina, nahi gabe izan da. Batzuek maila ona izan dute, eta aurrera egin dezaten ahalegindu gara. Baina, umeak egunero pilotan jokatzeko eta disfrutatzen ikustea da politena.



Umeak pilotara erakartzeko, zer behar da?

F. U.: Maitasun handia, baina, denekin. Gurasoen aldetik ikusi dut zera hori... ‘neure umea da-eta’. Baina guretzat denak ziren gure umeak. Denak gogo berdina gatz tratatzen genituen.

Gure umeak izan dira eta dira oraindik ere.

Umeek takoak erabili beharra dute?

J. U.: Badaude trapuzko pilotak ere umeentzat. Baina, badago derrigor irabazi behar hori ere bai. Ez luke horrela izan behar, olgau egin behar dute.

F. U.: Ikastea ez da txarra. Ipi ni dizkiegu guk ere, eta nola egin erakutsi ere. Eskuak makalak dituzte hasieran. Baina ez da kontua derrigorrez tako piloa ipintzea edo ordu erdi horretan aritzea.

Zenbat urte gazte txoak entrenatzen?

J. U.: 30 bat urte aritu gara arduradun. Hala ere, aurretik ere, laguntzen genuen.

F. U.: Pilotan ibilitakoak ere bagara. Gazte mailan txapelen batzuk irabazi ditut. Beti izan dugu lotura.

Pablito, Eñaut eta Asier Berasaluze, Ibai Zabala, Lejardi, Bazeta, Albizuri anaiek... Zuen umeak denak. **F. U.:** Bai. Egon dira zazpi batera profesional mailan. Urte piloa batzuekin, besteekin gutxiago, baina, denekin ibili gara.

Harrotasuna emango du.

F. U.: Poza ematen du, bai. Baina, gurasoengandik kirola egin ari direla eta pozik daudela entzuteak eman dit pozik handiena. Gero profesional mailan jokatzeko dutela? Ederto! ‘Irakatsi egin behar zaie, denei; eta gora heltzeko gaitasuna duena gehitxoago estutu. Pilotari ‘onak eta hobek’ izan ditut nik.

Txikitatik ikusten da nor arituko den gorenean?

F. U.: 16-18 urte gazte ikusi behar da hori, eta aurrera egin gura bada, bide horri ekin. Ilusioa duenak ez hainbeste, baina sakrifizioarako gaitasuna izan behar da. Zortea eta debutatzeko aita-puntekoak ere bai — azken hori sasoi baten gehiago—.

J. U.: Orain errazago debutatzen da, baina, enpresatik bota ere errazago botatzen dituzte. 26 urteko gaztea porrot eginda dator.

Sake zitalean espezialistak omen zarete Berrizen.

F. U.: Bai. Botea aurrera bota eta norberak 2. edo 3. pausoa hartu behar du. Negarrez ere ikusi ditut, lortu ezinik. Profesionalen aritutakoak ere bai.

Asko aldatu da pilota?

F. U.: Bai. Irakasteko boluntario gehiago zegoen, eta publiko gehiago. Goi-goian zegoen pilota. Asko jokatzeko zen frontoian, umeek ere bai; orain ezin dute.

Goian egon da Berriz pilotan?

F. U.: Munduko txapela eta olinpiadetakoa lortu ditugu; eta Baqué Torneoan bi mailatan irabazi genuen behin. Umeen txapelketetan ere ondo ibili gara.

LAUHORTZA

ITSASO GANGOITIA

Hezitzailea



Direnak eta ez garenak

Tximeleta ez da tximeleta jaiola. Arrautza izan zen lehen, larba edo beldarra geroago, eta krisalidaren itxurapean gordetzen da tximeleta bilakatu baino lehen. Hamaika izen erabiltzen ditu euskarak intsektua izendatzeko, mitxeleta, pinpirina, farfilla, txiribiri, jainkoilo, sorgin-oilo, tximirrika...

Tximeleta ez da tximeleta jaiotzen.

Gu, munduratu aurretik sailkatu gaituzte. Ekografietan hala-moduz ikusten diren genitalak jendartea multzo bitan banatzen

Ekografietan hala-moduz ikusten diren genitalak jendartea multzo bitan banatzen dute.

Bi sexuen arteko marra oso garbi marraztea gustuko dugu mendebaldeko kulturetan; zakila dutenak, gizonak, eta ez dutenak, emakumeak. Genitalen arabera markatzen dugu generoa, eta generoaren baitan, orokorrean, gure bizitza.

Gu, munduratu aurretik sailkatzen gaituzte.

Kanpo-genitalak eta identitate sexuala bat ez datozen pertsonen kasuan, transexualitate egoeran daudela esaten da; jendartean eraikitako sexuaren eta generoaren arteko koherentzia apurtzen da, jatorrizko sexuak ez baitu genero jakin bat zehaztu behar. Sexuak, beraz, ez dezala inoren bizitza kudeatu, bideratu edo mugatu.

Kanpo-genitalak eta identitate sexuala ez datoz beti bat.

Izena duena, bada. Badira txiruliruak, ingumak, mitxirrikak, pinpilinpauzak... Badira zakila duten neskek eta bulba duten mutilak.

Izena duena, badelako!

CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala

MATRIKULA

IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Gaztelania atzerritarrentzat.
- Goi mailako zirkulotarako eta Unibertsitateko sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera-maila).

MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

Matrikula egiteko ordutegia:
Asteleheneretan, asteartetan eta ostegunetan: 09:00-13:00 / 16:00-18:00. Asteazkenetan eta ostiraletan: 09:00-13:00

MATRIKULA-EPEA: Urtarrilaren 16tik otsailaren 3ra